

...eta
Kittoa!

2018-XI-9

1076 zkia.

Ugalketan Miren Mandiola laguntzen

QUIRÓN
Dra. Mandiola
Reproducción Asistida

QUIRÓN
DONOSTIA

EUKi
ASEGURUAK



**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA, KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

Informazio gehiago: eukiseguros.com

AZAROAREN 9tik 25era

AZITAIN Erretea (Eibar)

- Debabarreneko sasoiko barazkien menestra
- Kantauriko bakailaoa piperradarekin
- Eusko Label azpizuna guarnizioarekin
- Etxeko gazta-tarta Mendaroko txokolate urtuarekin

Azitain, 6 - T. 943 12 18 54
www.asador-azitain.com

BELAUSTEGI Jatetxea (Elgoibar)

- Etxeko aperitibo
- Zeletako tomatea Ondarroako antxo eta piperrekin
- Mutrikuko txapiroak euren tintan
- Euskal Txerri azpizunarekin egindako brotxetak sasoiko barazkiekin
- Mendaroko txokolatearekin egindako lingotea platan moussearekin eta baserriko pikuen izozkiarekin

San Miguel gaina, 44 - T. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

MENDIOLA Jatetxea (Ermua)

- Alkorta bakailao entsalada Debabarreneko barazki-eskalibadaren gainean
- Lumagorri hostorea Jokin Jaunaren onddo saltsarekin
- Zapoa sesamo zarakarrarekin, Sagarmiña txakolinez egindako olio errearekin eta Berano Txiki baserriko aza saltsarekin
- Euskal Txerri saihsak tenperatura baxuan erreta, Arabako patataren gainean
- Mausitxa gazta-mousse Mendaroko txokolatearekin eta kakao-crumblearekin

Erdikokale kalea, 19 - T. 846 08 00 86

PIKUA Jatetxea (Mutriku)

- Kantauriko hegazuzeaz egindako entsalada
- Geoparkeko arrainez egindako etxeko zopa
- Kantauriko legatza salta berdean, arrautza egosiarekin eta zainzuriekin
- Oliosoro baserriko entrekota parrillan erreta
- Mendaroko txokolateaz egindako brownia izozkiarekin

Laranga auzoa, z/g - T. 943 60 32 42

*AZAROAREN 19TIK AURRERA ITXITA



*Erreserbatu zure
Tripontziak menua!*



Jatetxe guztietan **botila 1 aukeran:**
Sagardoa, Txakolina edo
Arabar Errioxako Ardoa
Ura, kafea eta BEZa barne



#DEBABARRENA

www.debabarrenaturismo.com



Eman zure #Tripontziak
esperientziaren berri sare sozialetan
eta irabazi sari bikainak!

ANIMATU ETA PARTE HARTU, TRIPONTZII!

BORDATXO Jatetxea (Deba)

- Urasandiko onddo Royala sasiko ziza kremarekin
- Arrankasiko perloi zopa marinela erara
- Aitzola baserriko behi-saihetsa labean erreta
- Pantxineta Bordatxo erara Mendaroko txokolatearekin

Zesterokua plaza, 1-2 - T. 943 02 93 76

HOSTAL ITZIAR Jatetxea (Deba)

- Doniene baserriko barazkiak tenpura, Olabe baserriko arrautzekin
- Oilo-patea, Flysch txakolinarekin egindako masusta mermeladarekin
- Beliosoro baserriko Angus txahal biribilkia tipula karamelizatuekin
- Mendaroko txokolate-trufak

Itziar gaina, z/g - T. 943 19 90 61
www.hostalitziar.es

KANALA Jatetxea (Deba)

- Itsaspeko Uzkinga baserriko kalabazarekin egindako krema
- Lasturko Kortaberri baserriko barazki eta Flyscheko arrainez egindako zopa
- Geoparkeko legatz-kokotea egur-ikatzezko txingarretan erreta
- Eusko Label txahalez betetako piperrak euren zukuan eta Uzkinga baserriko tomatez egindako saltsan
- Mendaroko txokolatezko tarta bananaz

Itziar auzoa, 2 - T. 943 19 90 35
www.hotelkanala.com

URGAIN Jatetxea (Deba)

- Onddoz eta Geoparkeko arrainez egindako kroketak
- Perretxiko-entsalada epela
- Kantauriko arrain- eta itsaszi-krema
- Geoparkeko legatza edo rapea plantxan panadera patatekin, edo Eusko Label entrekota
- Sagar-hostorea Mendaroko txokolatezko moussearekin

Hondartza, 5 - T. 943 19 11 01
www.urgain.net

LASTURKO TABERNA Jatetxea (Deba)

- Bakailao entsalada epela eta Olabe baserriko arrautza ekologiko frijituaz hornituriko Lasturko Taloa, J.D. Getariako Mokoroa txakolin kopaz lagundurik
- Kantauri itsasoko legatz-xerra plantxan, sasoiko eta bertako barazki guarnizioarekin, J.D. Getariako Mokoroa txakolin koparekin
- Bertako sagarrez egindako krema eta onddo perretxikoz osaturiko Euskal Txerri azpizuna
- Mendaroko txokolateaz gozaturik egindako etxeko sumendi-tarta

San Nikolas plaza - Lastur - T. 943 19 90 33
www.lastur.eus

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Miren Mandiola

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Zu aurkitu arte ez naiz geldirik egongo –

Seme maitea:

Eibarren jaio zinen 1962ko maiatzaren 1ean, Pa-gei kaleko maternidadean, goizeko 07:00etan. Ne-re lehen seme biologikoa zara eta lapurtuegin zintzuten; niri hilda zeundela esan zidaten. Haur bat la-purtzea bidegabekeria da. Beste lau seme-alaba zo-ragarri izan genituen gero, baina zure hutsunea dut, zure falta dut eta zutaz jakitea behar dut. Zure be-netako istorioa ezagutzeko eskubidea duzula pen-satzen dut; zure jatorria, zure nortasuna osatzeko. Nire esku dagoen guztia egiten ari naiz zu aurkitze-ko; baina, orain arte ate guztiak itxi dizkidatenez, zu-gana jo behar dut laguntza eske. Zein polita ziteke-en zutaz jakitea, nola zauden, nolakoa zaren, nola

joan zaizun. Zure erabakiak errespetatuko ditudala jakin dezazun nahi dut, horrek zu ez ezagutzea ba-dakar ere. Zure beharrak nireak dira; baina, jakin-mina baduzu, aurrerapausu bat eman eta galdetu, paperak bilatu. Eskatu adopzioko gurasoei zure adopzioari buruz hitz egitea, egia esatea. Eurek agian ez dute jakingo lapurtu zintzutzenik. Zure au-ker a da oraingoan egiaren atea zabalitza. Joan Ma-drilgo A.D.N. bankura, han daukazu nere datuak eta lagunduko dizute. Errukirik gabe aldenduak izan gi-nen, baina zu aurkitu arte ez naiz geldirik egongo. Zuk erabaki zer den zuretzat onena. Ni zure zain egongo naiz beti.

Zure ama

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MASMA.- Armiarma. "Bildur, igoin eta gorroto barik hartu ezker, masmia koko-txiki miragarrixa da".

MASMA-ETXE.- Amarauna. "Masma-etxez betetako sapai batera eruan giñuezen".

astean esanak

"XXI. mendeko faxismoak ez du kontzentrazio-esparruen eta esbastiken beharrik izango; nahikoa izango du aurpegi irribarretsu bat telebista programa batean. Hori dagoeneko hemen dago. Trump ez zitzaigun zerutik erori; guk sortu genuen. Munstro horren sortzaileak gara; gu gara Frankenstein doktorea. Denok gara erantzule asko laga dugulako pasatzen aurre egin barik. Eskola gero eta txarragoak, enpresari handiek erositako komunikabideak ... Jendea ergel bihurtzen baduzu, ergel bati emango diote botoa"

(MICHAEL MOORE, ZINE-ZUZENDARIA)

"Txinak Errusia, India, Brasil eta Hegoafrikarekin batu eta proiektu ekonomikoa aurkeztu zuenean, EEBB neutralizatzeko mugimendua egin zuen, dolarra arriskuan ikusi zuelako. Baita lortu ere, Saudi Arabiako erret-familiak hitza eman baitzion petrolio transakzio guztiak dolarretan bakarrik egiteko. Strauss-Kahn-ek, Nazioarteko Diru Funtesko presidente zela, beste moneta batzuk sartu nahi izan zituen mundu-merkatuan. Hussein Jordaniakoak hidrokarburoen salmenta eurotan egin nahi izan zuen. Eta Gadafik euroaren antzeko Afrikako beste moneta bat ezarri nahi izan zuen. Denok dakigu zelan amaitu zuten, ezta?"

(BOAVENTURA DE SOUSA SANTOS, SOZIOLOGOA)

"Europar, nazionalismoak indartu ahala, euroari buruzko errezeloak gorantz doaz. Frantsesen eta italiarren herenak begibistatik desagertzea nahiko luke. Egia esan, Alemaniak bakarrik agintzen du moneta horretan eta krisi garaian gaizto jokatu du: moneta ezin zenez devaluatu, lana izan zen devaluatu zena eta, azken batean, pertsonak. Sakrifizio handia eskatu digu eta zor publiko handiak eragin. Halakorik merezi zuen? Baina eurorik gabe, arriskua larriagoa izan daiteke. Plastikopoltsa eta gomarena daukaguna baino txarragoa da: garagardo bat ordaintzeko billete-sorta bat behar duzunean, orduan da hondamendia"

(ENRIC GONZALEZ, KAZETARIA)

**ASIER AZKUE**

Errealitatearen aurrean

Bi aste pasatu dira Eibarko FT-ko akziodunek Areitio aukeratu zutenetik Kirol Hiria kokaleku berri gisa, alegia, 11.692 botok Bizkaiko opzioa aukeratu zutenetik, Azitainen aldeko 6.017 botoen kontra. Atzera bueltarik egon ez arren, prozesua ez da polemikatik at egon, izan ere, zaleen sektore bat hasiera hasieratik jarri zen klubeko administrazio kontseiluaren proposamenaren kontra. Badakigu demokraziak ez dituela sekula alderdi guztiak gogobetetzen.

Batzar orokorrean, eibartarrok historikoki edonolako proiektuak aurrera eramateko daukagun grina aipatu zen sarritan, hots, guretzat hain propioak diren limitazio orografikoak alde batera uzteko izan dugun gaitasuna edo ahalmena azpiegitura desberdinak egiteko; hortxe ditugu besteak beste AP-8 autopista edo Azitaingo poligonoa bera.

Nik prozesu hau hasieratik jarraitu dut, izan ere gure herriko klubak bere historia laburrean martxan jartzen duen proiektu garrantzitsuena da, baina esan beharra daukat momentu askotan pena asko sentitu izan dudala. Askok eztabaida "abertzaletasun eibartar" delako baten inguruan kokatu dute, herri xehea aipatuz alde batetik eta kontrol gabeko administrazio kontseiluaren boterea izendatuz bestetik. Iritzi hauen arabera, egiazko eibartarrak daude alde batean eta ez hain egiazkoak bestean. Ondo dator gogoraraztea, gure parean dugun errealitateari aurre egiteko, ezinbestekoa dela errealitateak berak eskaintzen dizkigun soluzioak erabiltzea, sentimentuak eta harrotasuna alde batera utziz. Esperientziaren muturrekoek erakutsi didate hau. Azken finean denok gara eibartarrak eta kasu honetan denok daukagu helburu berdina: herri gisa batzen gaituen oro defendatzea. Galdetu diezaiogun bestela gure aiton- amonei.

"Erosi bertan" kanpaina abiatu dabe dendarixak

Astelehenian ipiñi eben martxan "Erosi bertan", helburu bikoitza dakan merkataritza kanpaina: alde batetik, bertako denden lana nabarmendu nahi dabe eta, bestetik, kontsumitzaillieri erantzukizuna eskatu nahi jakue, "benetan nahi dogun gizartia sortzeko". Holan esan eben aurreko astian, Eusko Jaur-laritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak antolatutako kanpaina aurkezteko udaletxian egin zan ekitaldixan Alberto Albistegi, Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza sailaren zifnegotzixak eta Alfredo Retortillo, Eusko Jaur-laritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburuak. Kanpainaari ekiteko, gure herrixan hutsik daguizen hainbat dendatan biniluak ipiñi dittue, "zelako garrantzixa daken nabarmentzeko".



Zuloaga pintoriaren lana gehixen zabaldu daben Ramon Suarez hil da

Urriaren 29xan hil zan Zumaian, 84 urterekin, Ramon Suarez Zuloaga, Ignacio pintore ezagunaren biloba eta haren lana munduan zihar gehixen zabaldu dabena. "Los Zuloaga. Dinastía de Artistas Vascos" liburuaren egillia be bada eta bertan, Ignaciok hainbat arlotan egindakuari errepasua emotiarekin batera, Placido, Eusebio eta Danielen ibilbidia be emoten ditu ezagutzera arma fabrikaziñuan, damaskinatuan, zeramikan eta pintura arluetan egindakuak gogora ekarritta. Ramon gaur egun Zuloaga Fundaziñuaren ohorezko presidentia zan eta hainbat kargu izan ditu aurretik Industrias Cima, San Miguel eta Azkoyenen.



Txinako 21 ginekologo CRF Amosteguin bisitan

Txinan, hainbat ospitaletan ginekologiako zerbitzu-buru diran 21 ginekologo Eibarren egon dira, CRF errehabilitaziño zentruan bisitan. Erreferentzidun ginekologia zentruak kontuan hartzen dittuan amatasunaren inguruko europear zirkuito baten barruan egin eben bisita. Medikuak interes haundixarekin jarraitu zittuen amatasunaren prestakuntzari eta zoru

pelbiko obstetrikuari buruz Mikel Amostegui zentruko zuzendarixak emondako azalpenak. Izan be, Espainia maillan holako teknikak eskintzen lehenak izan ziran CRF eta Jose Miguel Amostegui eta, horrekin batera, Mikel Amostegui behin baiño gehixagotan jua da Txinako ospitaletera, gaixaren inguruan berba egittera.



Malen Ilarramendi




Debabarrena eta Debagoienako odol-emotailiak omentzeko ekitaldixa

Urriko azken asteburuan egin zetsen omenaldixa Debabarrena eta Debagoienako odol-emotailieri, Gipuzkoako Odol Emaileen alkartekuek Eibarren, Untzaga Plaza hotelian antolatutako ekitaldixan. Urteroko moduan, 25, 40, 50 eta 75 alditan odola emon dabenak omendu zittuen eta Antzuola, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Oñati eta Soraluzeko odol-emotailiak alkartu ziran. Errekoizimendua jaso ebenak honetxek dira: Jose F. Azpiazu (75 odol-emote); Pablo Abad, Aitor Azkue, Francisco J. Mora, Jose Andres Urkia, Ignacio Ruiz eta Igor Treviño (50 odol-emote); Amaia Elizondo, Eneida Garin, Yolanda Gomez, Ana Iriondo eta Aranzazu Juaristi (40 odol-emote); eta Amaia Agirre, Fatima Alberdi, Luis F. Aldazabal, Jorge Arregi, Nuria Bastida, Alex Bengoa, Laura Botas, Marilo Gomez, Arrate Hidalgo, Javier Lopez, Ainhoa Modrego, Conrado Paramio, Cipriano Vilchez, Olga Palacios eta M^a Carmen Zamakola (25 odol-emote). Omendueri intsigniak eta diplomak banatu eta jarraixan, alkarrekin bazkaldu eben.

autuan

1937-XAN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 23an alkartuko dira 1937xan jaixotakuak eta, bazkarira juan nahi dabenak, 55 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, ES2320955109009115389087 kontuan, izen-abizenak ipiñitta.




BERAKATZ ZOPA LEHIAKETIA

Eibarko Sarek 3. Berakatz Zopa lehiaketia antolatu dau azaruaren 17rako (Untzagan izango da, 11:30xetan). Izena emoteko eta bete biharreko baldintzak kontsultatzeko Buenos Aires tabernara juan bihar da.

4 SAIO

AZAROAK 17
ZAPATUA
16:30 & 19:00

AZAROAK 18
DOMEKA
16:00 & 18:30



SARRERAK SALGAI
(8,00 €)

EL TIO PALANCAS (J. Gisasola)
DENETIK (Urkizu)
GOZOKI (Bidebarrieta eta Sostoatarren)

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Martina Barruetabeña billatzeko dispositibua amaitutzat emon dabe

Urriaren 31n eten egin zan Martina Barruetabeña Ostolaza, 84 urteko eibartarra billatzeko Deba inguruan martxan ipiñitako dispositibua. Martina urriaren 24an desagertu zan Eibartik, illuntzian etxetik zaborra botatzera urten eta gero. Desagertu eta ordu gixira famelixakuak Ertzaintzari gertatutakuaren barri emon zetsen eta bixamonian bere argazkixa sare sozialen bittartez zabaltzen hasi ziran, Martina ahalik eta lasterren billatzeko esperantzarekin. Euskotreneko kamarak grabautako irudixak erakusten dabenez, trena Eibarren hartu eta Debara juan zan Martina, baiña han galdu zan bere arrastoa. Billaketa lanak Deba inguruan hasi ziran desagertu eta hurrengo egunian. Ertzaintzak adierazi deskunez, "Martina billatzeko dispositibua urriaren 31ra arte egon zan martxan. Horretarako helikoptera, itsasontzixak, Gurutze Gorria eta bestelako polizia baliabidiak erabili dira Deba eta inguruetan. Baiña orduak eta egunak pasatzen juan ahala, billaketa lanak etetzia erabagi zan. Halanda be, ikerketa lanak aurrera segitzen dau eta Martina topatzeko lagungarrixak izan leikien datu baxen billa segitzen dogu".



Egunetan ibilli dira erreskate-taldiak itsasoz zein airez billaketa lanetan.

Gizaldek bulegua zabalduko dau Ardantzan astelehenian



Gizaldek, Gipuzkoako boluntarioritza agentziak 20 urte daroiaz probintzian boluntarioritza sustatzen eta oin, tokixan tokiko zerbitzua emoteko, Debabarrenerako zerbitzua eskinduko daben bulegua zabalduko dabe astelehenian Eibarren, Ardantza kaleko 5. zenbakixan (Aldundiko menpekotasunaren baloraziño buleguarekin konpartiduko dabe lokala). Jendiari zuzenian arreta emoteko,

astelehenetan zabalduko dabe bulegua, 16:00etatik 18:00etara, baiña hortik kanpora be emaillez (gizalde.eibar@gmail.com), telefonoz (688779229) edo Gizalderen webguniaren (www.gizalde.com) bidez jarri leike zerbitzuko arduradunekin kontaktuan. Bide batez, jende guztia gonbidatu nahi dabe astelehenian bulegua zabaltzeko egingo daben ekitaldira.



SEBAS LARREATEGI (2018-XI-2)

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"
TXIKITO, EZ ZAITUGU SEKULA INOIZ AHAZTUKO!

EZ ADIORIK, GERO ARTE BAIZIK!!!

ZURE KUADRILLA



Azaruaren 20xan hasiko da Eibarko XV. Pintxo Lehiaketia

Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekia, Eibarko Udala eta herriko ostalarixak lagunduta, Eibarko XV. Pintxo Lehiaketia antolatu dau. Taberna bakotxak pintxo bana aurkeztu leike, identifikatzeko izen batekin, eta azaruaren 20, 21 eta 22rako (martitzen, eguazten eta eguena) preparauta euki biharko dittue pintxuak, bezeruak jateko moduan (1'5 eta 2 euro bittarteko pre-



zian). Oneneri sarixak San Andres egunian banatuko detsazez: pintxo onenari sarixa (150 euro, diplomía eta garaikurra); bertako produktua onduen erabilli dabenari sarixa (150 euro eta diplomía); eta publikuaren sarixa (150 euro eta diplomía). Publikuaren sarixa erabagitzeko, bezeruak emondako botuak eukiko dittue kontuan eta horrek jasotzeko kajak ipiñiko dittue tabernetan.

Berbalagunak Ezkioko Igartubeiti basarrixan egon dira

Eguraldi txarrari aurpegi ona ipiñitta, urriko azken zapatuan Ezkioko Igartubeiti Basarri Museuan egon zen berbalagun talde haundi bat. Goizian goiz hartu eben autobusa Eibarren, bisita gidatua 10:00etarako hitzartuta eguan eta. Hango Interpretaziño Zentruan euskal basarrixaren historixara gerturatu eta gero, XVI. mendeko dolare basarrixa barru-

tik ikusteko aukeria izan eben. Antziñako basarrixetako bizitza birsortzen daben museua da gaur egunian eta, oin dala lau mende euskal basarrixa zelakua zan ikusi leike. Basarrixaren ardatza dan sagardo-dolariak egitzen dau berezi Igartubeiti basarrixa. Ezkion barrenak apur bat epeldu eta gero, pozarren bueltau zan taldia Eibarrera.



San Andres XXVI. Makillau Lehiaketarako izen-emotia zabalik dago



Astelehenaz geroztik emon leike izena San Andres XXVI. Makillau Lehiaketan parte hartu ahal izateko eta horretarako azken eguna azaruaren 15a izango da. Txapelketia hillaren 25ian egingo da Untzagan, 11:00etan hasitta. 50 bikotek emon leikie izena gehixen jota eta parte-hartzailliak 30 euroko kuota ordaindu biharko dabe izena emotiarren. Hori bai, antola-

tzailliak ipiñiko dittue jatekua preparatzeko bihar diran ingredientiak. Eibarren dagutzen alkartiak ez eze, beste herri batzuetako etxiak edota lagun-taldiak hartu leikie parte. Taldiak lagun bikuak izango dira, baiña sukaldarixak zaletuak izatia eskatzen dabe (ezingo dira profesionalak izan) eta bikoteko kidietako bat Eibarren erroldatuta egon biharko da.



Ma JOSE PLAZAOLA LIZUNDIA

2018-X-12an hil zen, Las Arenas-Areetan

"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

ZURE EIBARKO KUADRILLA

Bere aldeko MEZA ospatuko da hilaren 11n (domekan), 12.30ean hasita, Arrateko santutegian





Giro ederrian ospatu zittuen urte berian jaixotakuen bazkarixak

Urriaren 20xan ospatu eben euren jaixa 1963ian jaixotakuak. Eibarko Bizikleta Plazan alkartu eta Kasinuan piskolabisa hartu eta gero, Arratera juan ziran, han bazkaltzeko. Eta 1958. urtian jaixotakuak, bestalde, urriaren 27xan alkartu ziran, aurten 60 urte egitten dittuela ospatzeko.

“Gure Kasa” saiorako Eibarren grabatutakua astelehenian emitiduko dabe

Aurreko asteko eguaztenian Eibarren egon ziran ETB1eko “Gure Kasa” programak, astelehenian ikusi ahal izango dan saia preparatzeko biharrian. Bazkalostian Eibarko Kaleetan Kantuz abesbatzarekin egon ziran eta San Andres elizako klausturuan kantatzen grabatu zittuen. Aurretik, Kokein taldeko Zaloa Urain eta Ahotsak-eko Aintzane Agirrebeñarekin egon zirala aurreratu zeskuen, baiña esandakuak eta beste batzuk ikusteko astelehen illuntzerarte itxoin biharko dogu, 21:30xetan hasiko dan saia hasi arte.



Ekitaldi hunkigarrian jaso eban Gure Balioak sarixa Julen Zabaletak

Urriaren 25ian Mallabiko frontoian egindako ekitaldi hunkigarrian jaso eban Gure Balioak Saria 2018 aurtengo omenduak, Julen Zabaletak. Aurreko urtian errekonozimendu bera jaso eban Felix Etxeberriak emon zetsan oroigarria marrazkilari eibartarrari, J.L. Baroja Collet artistaren “Balioen artikulazioa” izeneko brontzeko irudixa.



M^a LUISA GARATE ALTUNA “Marialui”

4. urteurrena (2014-XI-6)

“Ez ditugu inoiz ahaztuko izan
dituzun ilusioa eta bizipoza”



Karteleria digitala Informatiandoren eskutik iritsi zen Eibarrera. Publizitate-berrikuntzaren aldeko apustua egin zuten lau informatika enpresez osatutako taldea da Informatiando: Ukabi S.L (Azpeitia), Infomadaia (Urretxu), Hogeitabi Informatika S.L (Zarautz) eta Infosec (Eibar). Eibarren lau urteko ibilbidea dute jada eta, hau bere proiektu pilotua izan arren, karteldegia digitaleko sarea eta zerbitzuen eskaintza handituz joan da, beti ere berrikuntza eta teknologiaren ildotik.

Gaur egun burubelari dabilta Durangoko proiektuarekin. Bertan karteldegia digitaleko 20 pantaila gehiago jartzen ari dira, beren sarea 50 pantailetaraino handituz eta, horrez gain, neurria egindako mahai taktilen software-a inplantatzen dihardute.

YON SENDINO PROIEKTU ARDURADUNAREKIN HIIKETAN

– Zer da karteldegia digitala?

Publizitatea duten pantailak dira, baina publizitateaz aparte, informazio lokala, meteorologikoa eta abar ere eskaintzen dute. Profil desberdineko jendearen joan-etorri handia duten lokaletan instalatzen ditugu pantailak, eta horrela publiko zabala-goarengana ailegatzeko gara.

Horri esker, gure bezeroek eurenean zein inguruko herrietan ezagutzera emateko aukera dute, gure sareko interkonexioari esker. Publizitate dinamikoa bat eskaintzen dugu, internet bidez, edukiak momentuan aldatzeko aukera dago, eta horrek malgutasun handia eskaintzen die bezeroei, beste edozein publizitatearekin konparatuz.

Informatiandon prozesu guztiaz arduratzen gara: neurria diseinatutako iragarkia, bideoaren edizioa.... Zerbitzu denak eskaintzen ditugu, prozesua bezeroarentzat ahalik eta eroso-erazteko.

– Zer beste zerbitzu eskaintzen dituzue gaur egun?

Oraintxe bertan gure karteleria-sarea handitzen ari gara: Durangon beste 20 pantaila instalatzen gabiltza. Horri esker, gure bezeroek beren negozioa herritik kanpo ezagutzera emateko aukera ere izango dute. Durangokoekin, 50 pantaila izango ditugu jada.

Karteleria digitaleko bideari jarraituz, eta hainbat bezeroen eskariak aintzat harturik, pantaila propioak (neurria egindako pantaila edukiak, bezeroaren lana eta zerbitzuak iragarri) eta mahai taktilen eta horien software pertsonalizatuaren proiektua martxan jartzea erabaki genuen. Proiektu hauek bezeroaren neurria egindakoak dira.

Produktu horiez aparte, gure bezeroek zinemetan azaltzeko aukera dute musikalizatutako bideo berezi batekin.



Informatiando

Karteleria sarea DURANGORA ZABALTZEN



– Zein da urte hauetako balorazioa?

Urte hauek oso positiboak izan dira. Sasoi berriek sortzen duten beharretara moldatzen goaz. Pixkanaka, gure eskaintza handitu dugu bezeroen beharretara egokituz. Sareari esker, bezeroen kezak berehala egokitu ditzakegu, ahal dugun neurrian behintzat. Elkarlanean, bezeroaren gogobetetasuna dugu beti helburu.

Gure sistemarekin, urte hauetan lortutako “feedback” positiboa ikusita, Eibarko lehenengo 20 pantailen ondoren, Elgoibarrera salto egin eta beste 10 jarri genituen, eta orain (hemendik pare bat astetara) Durangon beste 20 pantaila jarriko ditugu. Egia esan, oso harrera ona edukitzen ari gara. Guk geuk kudeatutako dugun 50 pantailetakoa sarea izango dugu laster, horrek gure bezeroentzat ekarriko duen onurarekin.



– Eta etorkizunari begira?

Dinamika berarekin jarraitzea dugu helburu. Etengabeko hobekuntza: gure zerbitzuen kalitatea zaindu eta eskaintza zabaltzea, beste herri batzuetara helaraziz, beti ere bezeroen beharrik kontuan izanda.

Horren harrera ona edukitzen ari den pantaila propio eta mahai taktilen proiektua eta horien software pertsonalizatua gartzen jarraitu nahi dugu. Gure produktua, gure proiektuaren parte izan nahi duen ororentzat geroz eta interesgarriagoa izan dadin.



Informatiando

9 4 3 1 5 0 6 2 2

WWW.INFORMATIANDO.EUS



Zientzia Astearen barruan, **gaur 19:00etan Portalean eskainiko duen hitzaldian** Miren Mandiola Donostiako Quirón ospitaleko Ugalketa Lagunduko eta Genetikoko Laborategiko zuzendari eta ospitale bereko Ugalketa Lagunduko Unitateen koordinatzaileak “gizarte aurreratueta ugalkortasunean dagoen erronka garrantzitsua” aztertuko du. Eibartarrak Medikuntzako eta Kirurgiako lizentzia lortu zuen Nafarroako Unibertsitatean 1986an eta Anlisi Klinikoetako Mediku Espezialistaren titulua Gurutzetako Ospitalean 1991n. Jarraian ugalketa lagundua arloan sartu zen buru-belarri, mundu osoko hainbat zentrotan jardunez Donostiako Quirón ospitalean hasi aurretik. Ugalketa lagunduko Gipuzkoako lehenengo unitatea inauguratu zuen eta ordutik aitzindari izan da arlo horretan. Estatu guztian antzutasun-arazoak edo gaixotasun genetiko larriak dituzten bikote askori lagundu dizkie.

MIREN MANDIOLA

(Laguntza bidezko Ugalketako doktorea):

“Mentalizatzeko ordua heldu zaigu: zenbat eta gizarte ‘garatuagoa’ izan, orduan eta zahartuago batean bizi gara”

- Portalean emango duzun hitzaldiak “Ugalkortasuna gizarte aurreratueta. Kaosa XXI. mendeko ugalkortasunean” izenburua du. Zer nahi duzu eman eza-gutzera?

Batez ere, guk gizarte aurreratueta ditugun horietan jaiotze-tasan izan den jai-tsieraz ohartu nahiko nuke jendea, horren zergatiak azalduz eta soluzioak izan daitezkeenak mahaigaineratuta.

- Eta zeintzuk dira zergati horiek?

Sasoi batetik hona gertatu den mentalitate aldaketa da. Gure gizartean ama izateari ez zaio lehen bezalako lehenetasunik ematen. Bestalde, seme-alabek dena eukitzea dugu. Bata bestearekin lotuta, azkenean guraso izatea gerorako lagatzea da arazoa; eta, hamarkadatik hamarkadara, gero eta beranduagorako. Zenbat eta beranduago, orduan eta arazo gehiago guraso izateko. Onartu dugun bizitza-filosofiak ekarri gaitu hona.

- Aipatu duzunak zer ondorioetara eramaituzte?

Gaurko errealitatera, jakina. Eta egoera arduratzen hasteko modukoa da, krisi antropologikora iritsi garela. Ez da gure arazoa bakarrik; gizarte “aurreratu” guztietan

gertatzen da, baina horrek ez dio larritasunik kentzen. Zenbat eta “garatuago”, orduan eta zaharragoa da gizarte hori. Belaunaldien arteko jarraipena gelditzeraz eraman gaitzake jarrera horrek. Seme-alabak izateak garrantzia galtzen badu, hori baino lehenago gure helburua beste mila gauza egitea baldin bada, ez dakit zuzen goazen. Eibarrera bertara etorritako etorkinek beste filosofia bati jarraitzen diotela ikusi dezakegu: seme-alaba gehiago dituzte eta eibartarrok baino gazteago animatzen dira seme-alabak izatera.

- Soluzioak nondik bideratu daitezke?

Hasteko, argi dago egoeraz jabetu behar dugula. Horrez gain, ahaztu dezagun epe motzean honi buelta ematea, gutxienez bi-hiru belaunaldi beharko ditugulako beste egoera batera iristeko. Baina, gizarte moduan bizirik irauteko, lehen aipatutako bizitza-filosofia aldatu beharrean gaudela. Orain dela 20 urteko “edaten baduzu, ez gidatu” arrotza egiten zitzaiguna gaur egun guztiz barneratuta dugu. Arazo honenkin gauza bera! Epe luzerako prozesu horretan, jakina, administrazioak ere badu bere zeregina, laguntza gehiago eskainiz eta lana eta familia bateragarri egitea ahal-

bidetuta. Bestalde, badira maila indibidualetan hartu daitezkeen neurri batzuk; esaterako, ama izatea atzeratuta ere, emakume horrek obulua gorde dezake gazteago denean gerorako. Mentalizazio-kontua ere bada, azken batean.

- Zure lan arloan izandako esperientziatik, zelako garapena izan da? Atzerapausuak nabaritu dituzue?

Laguntza bidezko ugalketaren nire lan-esparruan, azken hamarkadotan antzutasun-arazoak bikoiztu egin direla esan liteke. Puntu horretara eraman gaituzten faktoreak askotarikoak izan dira; hala ere, pisu handiena duena da ama izateko adina asko handitu dela, urtetik urtera nabaritzen da gainera, eta horrek haurdun geratzeko aukerak zaildu egiten du. Garrantzi handia du baita semenaren kalitatean igarri dugun jai-tsierak ere, horrek haurdunaldia lortzeko orduan eragin handia duelako bikoteek izan ditzaketan arazoan artean. Edateak, erreteak eta ingurugiroko bestelako faktore toxikoek badute hor zeresana.

- Laguntza bidezko ugalketaren esparruan, non kokatuko zenituzke azken urteotako mugarrak, aurrerapen handienetara eraman gaituzten lorpenak?

Zalantzarik gabe, 1978an dago guztiaren oinarria, Louise Brown munduko lehen probeta-umea jaio zenean, in vitro ernalketari esker. Harrezkero etorri diren laguntza bizidun ugalketa teknika guztiek iturri horretatik edaten dute. Ordura arte ezinezkoa zirudiena lortu zen, hau da, amaren umetoki edo uterotik kanpo bizitza bat sortzea. Geroago, 90.eko hamarkadan, ICSI inzialekin ezagutzen duguna dago, mikroinjekzio espermatozoiden intrazitoplasmatikoa; horri esker, kalitate gutxiago zuten gizonen espermatozoiden edo hazia isurtzerakoan espermatoziderik ez zutenek aita genetikoak izateko aukera zabalduta zen. Eta azken sasoi honetako iraultza handienetakotzat jo dezakegu DGP-a (Diagnostiko Genetico Preimplantacional); horri esker azterketa genetikoak egin daitezkeen gaixotasun genetiko familiar larriak desagertzeko aukera dago.



Zortzi zelulako enbrio-aurrekoa; hiru eguneko bizia du.

- Zeintzuk dira epe motzera dituzuen hurrengo erronkak? Edo gaur egunean lan-tzen diharduzuenak? Badago esparru zehatzik zailtasun bereziak ipintzen dizkizuenak aurrera egiteko?

Epe erdirako erronkak aurrerapen genetikoei lotuta joango dira, nahitanahiez. Gaur egun genetikoki diagnostikatzen ditugun moduan, hemendik urte batzuetara seguraski aukera izango dugu enbrioak genetikoki manipulatzeko akats genetiko barik garatu daitezkeen. Badira beste garapen mota batzuk aurrerapen polita izan dutenak, oraindik ere maila esperimentalean izan bada ere: gameto artifizialen formazioari buruz ari naiz, hau da, laborategiko obulu eta espermatozoiden buruz.

- Etikoki, zein arazokin egin dezakegu topo? Zelan ikusten dituzu "kartara sortutako umeak"?

Orain arte "nahierara sortutako umeak" oso kasu apartak izan dira, guztiz ezohikoak, eta gaixotasun larriak zuten anai-arreberekin konpatibleak ziren umeak sortzeko hel-

buruarekin, gaixotasun horretatik sendatzeko anai-arreba histokonpatiblea beharrezkoa zutelako. Hortik kanpokoa hausnartzerakoan, zaila da posizio bati eutsi eta handik ez mugitzea, baina ez dirudi oso etikoa "umeak nahierara sortzea". Baina familia horietako desesperazio-egoerari erreparatuta, ez dakit ba... Edozein kasutan, oso kasu jakinak izaten dira eta, gainera, halakoetan Batzorde berezi batek aztertzen du kasu bakoitza.

- Aurrekoari lotuta, uste duzu Administrazioak egoki erantzuten diela aurrerapen teknologikoei eta hortik ondorioztatu daitezkeen "arazoei"?

Ez dut uste kexatzeko moduan gaude-nik, praktikoki sor daitezkeen arazo guztiei modu batean edo bestean erantzuten dietelako.

- Eta haurdunaldi subrogatuari heltzen badiogu, uste duzu komenigarria dela lehenbailehen legislatzea?

Egia esateko, esango nuke gaur egun ez dela medikuntza munduaren errebindikazioetako bat, aplikatzeko kasu askorik ere ez baitago. Ez dago benetako eskaerarik medikuntzaren aldetik.

- Zer du erakargarrien zure profesioak?

Guztia! Hori bai galdera... Ditugun helburuak lortzen ez ditugunean, etsipen sentazioa handia izaten da... Baina emaitza positiboak denean, poza ere neurri berekoa. Helburua, gainera, ez didazu esango zoragarria ez denik: zuregana laguntza eske dagozeneri guraso izaten laguntzea, bizi berri bat mundura ekartzea. Urte guzti hauetan poz handia sentitu dut askotan.



Espermatozoiden mikroinjekzio intrazitoplasmikoa (ICSI). Semenaren kalitatea oso apaladenean, espermatozoidak laguntza behar du obuluan sartzeko. Obulu bakoitza irekitzen da, orratz zorrotzarekin eta mikroskopio konplexu batzuzarekin espermatozoidea sartzeko.

DANEL ZENARRUZABEITIA BADIOLA (2018-X-23)



Urtetik urtera,
bihotzez eskerrak,
zure izana, zure islada,
gure beharra
zure izpiekin
hasitako loreak gara.

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Jose M. Larreategi
"TXOPEN"

Bidea eginez eta jakintasunez ureztatzen, zure haziak gure bihotzetan landu dituzu.

ALBERDI FAMELIXIA

Asier Errastik asko utzi zuen familia eta lagunengan, baina baita bere herrian ere, Eibarren. Zinearen eta ikus-entzunezkoen maitale, legatu garrantzitsua laga zigun. Goizegi joan zen, baina bere ekimenez sortutako laburmetraien lehiaketak bizi-bizirik dirau. 19 urte beteko ditu aurten Asier Errasti Film Laburren Lehiaketak eta bihar jakingo dugu nork eskuratzen duen Javier Agirresarobe saria. Bitartean 47 film labor ikusteko aukera egongo da Coliseoan gaur gauera arte. Film laburrek gauza handiak kontatu ditzakete, Asier Errastik utzi digun ondarea bezain handiak.

Pantaila handian ez dago gauza txikirik

Goya sariak eskuratu dituzten lanak pasatu dira Asier Errasti Film Laburren Lehiaketatik eta batzuk Sundance zine independentearen jaialdi handirako ere izendatu dituzte. Aurten, adibidez, aktore handiak izango ditugu eta Eneko Sagardoy, Barbara Goenaga, Álvaro Cervantes, Úrsula Corberó, Mikel Losada ermuarra eta Ylenia Baglietto eibartarra pasatuko dira Coliseoko pantailatik. Film laburren industriak erreferentziazko jaialdi bat dauka Eibarren, Coliseoan proiektatzen diren lanek pantaila ikusgarriagotara jauzi egin dezaketelako.



Ibon Uzkudun



Zuzendari eta aktore lanak egin ditu Uzkudunek "Esperanza" laburrean.



Anardi kafetegian grabatu zuen Juanma Canok "No escupas hacia arriba".

Aste honetan berriz piztu dira fokuak eta denbora laburrean zeresana emango duten lanak jaso ditu Coliseoak. Astelehenean hamar film eman dituzten eta animaziozko lanak, barre egiteko filmak, nagusikeria eta pobrezia islatzen dituzten laburmetraiak, umeez erakitako unibertsoak eta bizikidetzaren inguruko gogoeta egiten duten ikus-entzunezkoak ikusi ahal izan dira. Gaur egongo da azken lanak ikusteko aukera eta bihar jaialdi berezia egingo da sariak banatzeko.

Hamar film labor ikusi ahal izango dira gaur 20:00etatik aurrera. Marc Riba eta Anna Solanasen 'Cucarachas', Samuel Pattheyren 'Travelogue' eta Fátima Tamayoren 'Ánima' (hirurak animaziokoak), Julian Candonen 'Crack', Úrsula Romeroen 'Alan', Ruben Barbosaren 'La teoría del sueño', Oier Fuentesen 'Aska tasun ari', Ilune Diazen 'La habitación de las estrellas', Violeta Trincadoren 'Zacarias' eta Ibon Uzkudun eibartarraren 'Esperanza'.

'Esperanza', istorio gogorra

Oso pertsona polifazetikoa da Ibon Uzkudun. Irrati esatari hasi zen Cadena SER-eko 'La marcha deportiva' saioan, telebistako hainbat saioaren aurkezlea izan da, estatuko hainbat telesail famatutan ikusi ahal izan dugu eta gaur egun irratan entzun dezakegu berriz ere, Radio Eibarren kiroletako

saioa hasi baitu berriki. Kame-raren atzean ere egin du bidea eta 'Esperanza' film laburra grabatu zuen 2017an. Eibartarraren lanak oso harrera ona izan du eta La Platako jaialdi batean finalista izan zen.

Uzkudunek "istorio gogor bat" kontatzen du 'Esperanza' laburmetraian. Zuzendariak kontatu digunez, ez da bizitza arruntean gertatu ohi den istorio bat, baina era berean edozein herri txikitara gerta daitekeen kontua da. "Egoera txarra bizi duten pertsonak helburu edo esperantza bati heldu behar diotela azaltzen du filmak". Zaila izan daiteke film labor baten laburpena egitea, baina Uzkudunek bere lanaren nondik norakoak azaldu dizkigu pare bat esalditan. "Gizon baten iraganeko informazio bat eskuratu nahi du eta, barrenean daramanez, kanpora ateratzeko beharra sentitzen du. Horretarako, pare bat urtetan gogor egiten du lan emozionalki eta psikologikoki bere bihotza eta burua zaintzen helburua lortzeko. Azkenean xedea lortzen du, baina hainbat gauza gertatzen dira eta bukaera irekia uzten du filmak". Uzkuduni asko gustatzen zaio bere filmeetan amaiera irekiak uztea. "Zinematik irtetea solasaldirako aukera ematen diozulako publikoari". Horrek ez du esan nahi bere lana amaitu barik uzten duenik. "Filma amaitu egiten da, baina hainbat galdera sortzen dira".

Alejandro González Iñárritu mexikarraren 'Amores perros' da Uzkudunen pelikula gusto-koena. "Inoiz ikusi dudan ederrera da, ikusten dudan bakoitzean demaseko inpaktua eragiten didalako. Lehen aldiz ikusi nuenean lur jota irten nintzen zinematik". Berari ere lur jota uzten duten pelikulak egitea gustatzen zaio. Hau da, albistegietan agertzen diren berriak fikziora eramane eta "hau benetan gertatzen da" esatea. Ikuslea istorio horietan murgiltzen saiatzen da Uzkudun, "hori da lorpen handiena".



"Consejos para eliminar la caspa" laburmetraiko lantalde bera bildu du Canok.



Zuzendari lehenengo aldiz
 Bihar 19:30etan egingo da sari-banaketa ekitaldia Coliseoan Nerea Ariznabarreta aktore eibartarraren ikuskizun bereziarekin. Film labor onenak Javier Aguirresarobe saria jasoko du, eta euskarazko eta animaziozko lan onenek ere diru sari bera jasoko dute, 700 euro bakoitzak. Eibartar batek egindako lan onenak ere saria jasoko du eta bi lanen artean dago lehia. Uzkudunek adierazi digunez, "irabaztea ondo legoke", baina beste film eibartarrak irabazten badu, poztuko litzateke. Izan ere, bere lanki-

de Juanma Canoren 'No escupas hacia arriba' lana da beste finalista (egunean proiektatu zuten bere lana). Radio Eibarraren egiten dute biek lan eta, beraz, saria etxean geratuko da.

'No escupas hacia arriba' lanarekin estreinekoz ibili da zuzendari moduan Juanma Cano. Eibarko ahots ezagunenak orain dela zazpi urte ezagutu zuen antzerkiaren mundua eta pasioa etengabe hazi da ordutik. "Pentsatzen

dut edonor pasatu behar dela oholta gainetik, egunerokotasunetik deskonektatzeko metodo ezin hobea da". Canok, gainera, asko gozatzen du idazten. "Demaseko aurkikuntza izan da, idaztea maite dut".



Guri buruz esango dutenaren inguruan egindako gogoeta da 'No escupas hacia arriba'. "Eguneroko kontua da, ez da gogoeta filosofiko sakona, baina gure bizitza nahi dugun moduan bizitzea aldarrikatzen du, besteei kalte egin gabe noski". Umorea ez da falta Canoren laburmetraian eta atsegina delakoan dago. "Oraindik estreinatu ez denez ez dakigu jendeak nola erantzungo duen, baina entretenigarria izatea espero dugu".

Pluralean egiten du berba, bera zuzendaria bada ere, lagun minek osatu dutelako filmaren lantaldea. "Primera-koa da jende onarekin ingurutzeta". Maite García, Ane Ruiz, Maider Albizu, María Ríos, Eguzki Arginzoniz eta Iker Iriondok osatzen dute aktoreen zerrenda, eta Joseba Casasola arduratu da arlo teknikoaz. Zuzendari, aktore eta teknikari eibartarrak ditu laburmetraiak eta Eibarren grabatu zen (Anardi tabernan). Beraz, eibartasuna biribiltzeraren (eta nola borobildu gainera), Eibarko musikari handi batek jarri dio doinua Canoren lanari. "Filma hasteko eta amaitzeko abesti bana sortu ditu Maite Arroitauregik, eta ukitu berezia ematen diote filmari".

Barrenean daramatena erakusteko egin dituzte film laburrrak Uzkudunek eta Canok, baina, batez ere, ondo pasatzeko. Filma egitea, dagoeneko, saria da eurentzat. Asmo handirik gabe film laburrrak egin dituzte, bere txikitasunean handiak izan daitezkeen lanak.

JOSETXO ARANA (2016-XI-8) - 2. URTEURRENA -



"Beti izango zara gure izarra.
 Egunero zaude gure bihotzetan"

ASKO MAITE ZAITUGU -ETXEKOAK-



+ osasun gida

Dentistak



arat
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 12/017



Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOIA

KIRURGIA
ESTETIKOIA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOIA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUETA, 20
TUF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia



Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardolaura@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Estefanía
Abanto

- GINEKOLOGIA
- OBSTETRIZIA
- LAGUNDUTAKO UGALKETA

Untzaga, 11 - 1. D 943 70 29 42

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 1004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulgoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORREETAN

centro médico eibar

Psikoterapia

R.P.S. 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



JOSE LUIS IRIGOIEN: "Akondiatik panorama zoragarria dibisatzen da".

'Microfísica sexista del poder. El caso Acàsser y la construcción del terror sexual' liburua aurkeztu zuen atzo (eguen) Nerea Barjolak Portalean. Liburuan jasotakoaren berri eman zuen bideo eta audioen laguntzarekin, eta solasaldi dinamikoa izan zen. Politilogoia izateaz gain, feminismoan eta generoan doktorea da Barjola eta 1992an Alcàsserren gertatutako krimena ikuspegi politikotik aztertu du liburuan. Jack Tripa-ateratzailea kasuarekin paralelismoak eginez Alcàsserko krimenari esanahi berria eman dio, emakumeen bizitzarako garrantzia handia duen kontakizun politiko gisa.



NEREA BARJOLA (politilogoia):

“Alcàsserko krimenaren inguruan eraikitako kontakizuna etengabe errepikatzen da”

- Nondik abiatu zara liburua idazteko?

Nire aktibismo feministatik abiatu da liburua. Idazten hasi nintzenean feminismo eta genero masterra egiten nengoan EHUn eta Bizkaiko Emakume Asanbladaren erasoan aurkako komisionan egiten nuen lan. Testuinguruan, ikasketak eta aktibismo politikoa batu nituen. Bestetik, Alcàsser kasuari dagokionez haserrea sentitzen nuen. Faktore guztiak batu eta Alcàsserko krimenak feminismoaren teoria kritikotik berraztertzea erabaki nuen.

- Alcàsserko krimenaren narrazio politikoa egiten duzu liburuan, baina zertan datza narrazio politikoa hori?

Arrisku sexualaren kontakizunaz edo narrazio politikoz berba egiten dudanean, egitura patriarkal eta matxistaren inguruan eraikitzen den narrazioaz ari naiz, emakumei erakusgarri handiko mezuak bidaltzen dizkielako. Alcàsserko krimena testuinguru politiko matxistan kokatzeko egiten dut berba termino politikoetan.

- Sasoi hartan (eta gaur egun) gertaera bat izango balitz bezala aurkeztu zen Alcàsserko krimena gizartearen aurrean. Nolako ondorioa izan zuen horrela aurkezteak eta gertaera horren narrazio politikoa egin ez izanak?

Gertakizun moduan tratatuz, emakumeen aurka egiten den eraso sexista ezereztan da. Era berean, multzo sozialari eraso

hauek ohiz kanpoko zerbait bezala aurkezteko aukera ematen dien ke-lainoa da. Eta ohiz kanpokoak bezala markatzen ditugunean, multzo sozialetik kanpo kokatzen ditugu. Beraz, gertatutakoaz arduragabetzen gara, nahiz eta ohiz kanpokotasunaz berba egiten dugunean multzo sozialaren arauaren esentziaz berba egiten dugun.

- Erasotzaileekin ere antzeko kontakizuna egiten da? (Ohiz kanpoko pertsonak bezala aurkezten zaizkigu: zoroak, desorekatuak, bereziak...).

Bai. Erasotzaileak multzo sozialetik kanpo edo gizonen kategoriatik kanpo dauden gizonak bezala irudikatzen baditugu, bere statu quo soziala betikotu nahi duen multzo soziala eta sistema politiko-soziala babestuko dugu. Gizonak emakumeen gorpuztaren eta bizitzaren gainean dituzten pribilegioak betikotzen dira statu quo sexuala betikotzen denean.

- Alcàsserko krimenaren inguruan eraikitako kontakizunak gaur egun bizirik jarraitzen du?

Bai, etengabe errepikatzen den kontakizuna da. Forma aldatzen da, baina edukia

“Hizkuntza feminista barik oso zaila da formatu eta edukien formak aldatzea”

ez. San Ferminetako erasoan, Rocio Wannhinkoff, Marta del Castillo eta Diana Querren kasuan, adibidez, kontakizun horiek batzen dituzten elementuak ia berberak dira.

- 26 urte pasatu dira Alcàsserko eraso gertatu zenetik. Zergatik ez da aldatu kontakizuna?

Eboluzioa egon beharko litzateke, baina eboluzio hori gertatzeko maila indibidualetik kolektibora (eta alderantziz) jauzi egiten duen borondatea egon behar da. Gainera, borondate hori feminista izan beharko litzateke. Hezkuntza feministarik ez badago (eta horretarako asmorik ere), oso zaila da formatu eta edukien formak aldatzea.

- Zein izan da hedabideen rola kontakizun horren eraikuntzan?

Emakume erasotuen ardura jartzen dute hedabideek analisiaren erdigunean, eta erasotzaileak eta (ondorioz) multzo soziala errugabetzen dituen ohiz kanpoko kontakizuna egiten dute. Ikuspegi feminista inplementatzeko asmorik ez duten pertsonak daude hedabideetan eta euren maila diskurtsiboen kontakizun fidelatzaileak osatzen dute, hau da, kontakizun matxista. Feminismoa da patriarkatuari eta emakumeen aurkako erasoak sustatzen dituen egitura sozialari aurre egiteko modu bakarra, patriarkatuaren erantzun antagonikoa delako.

*iker aranberri*

“Bizitzak gorputzaren barreneraino sartu dizkio eztenak denbora luzez, ia-ia arima bera ere ukitu arte”

Eztenak eta ezpalak

Bizitzak gorputzaren barreneraino sarturiko eztenak erauzi nahian ibili da luzaroan. Luzeegi agian. Bizitzak gorputzaren barreneraino sartu dizkio eztenak denbora luzez, ia-ia arima bera ere ukitu arte. Agian ezten bakan batek, bere puntatxo zorrotzarekin, arima ukitu dio, eta berau urratu, kraskatu, zatitu, modu erabakiorrean gainera, soluziorik gabe.

Eztenak sartu dizkio bizitzak gorputzaren barreneraino, luzaroan, promesak betetzen ez direnean sabelean edo bihotzean sortzen zaizkigun zitxada labur eta sakonak bezalaxe. Bata bestearen atzetik, gupidarik gabe.

Eta berak, erdeinuz begiratu die eztenei. Zer eta bere gorputza zultzeko ausardia erakutsi dutelako. Beren punta zorrotzarekin, errukirik gabe, bizirik dagoela gogora arazi diotelako.

Nahigabea ukatzeko adorerik ez duela eta eztenak erauzteko jada nekatuegi dagoela jabetu da. Nahigabeak garaitu duela, luzeegi egon dela eztenak erauzten, ekinga horrek adorea eta ke-

mena emango zizkiolakoan. Baina ez; lortu duena izan da nahigabea arintzea, gero eta ahulago, gero eta zekenago, gero eta etsiago egoteraino.

Jabetu da, baita ere, baduela oraindik itxaropenik, baina egin beharreko sakrifizioa gehiegizkoa iruditu zaio. Akituta dago. Itota dago. Ziurtasunetik ezjakintasunera norabide bakarreko bidaia dagoelako, eta bidaia luzeegi egin zaio.

Ez da ohartu ordea, eztenek bere azalean, ariman, zuloa egiteaz gain, barreneko airea ez kanporatzeko ezpalak ere izan badirela. Eta eztenak eta ezpalak erauziz, barreneko airea ere erauzten duela. Eta alferrik dela eskuaz zuloa estaltzea, aireak ihes egingo baitio edozein modutara ere.

Denbora gehiegi eman du eztenak erauzi nahian, luzeegi agian. Eta ez da konturatu aire gabe geratzen ari zela, arnasbideak garbi eduki arren aireak ihes egiten diola zulotxo ikusezinetatik. Eta badoa. Eta eztenek arima urratu diotela konturatu da.

*iratxe muñoz*

“Tratamendua kenduta ea birusa desagertu den egiaztatu behar dute”

HIESa sendatzetik gero eta hurbilago

Azken aste hauetan, berri itxaropentsuak jaso ditugu Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromearen (HIESa) inguruan. Izan ere, Bartzelonako Sida IrsiCaixa eta Madrileko Gregorio Marañon Ospitaleak elkarrekin burututako ikerketan batean, 5 gaixori HIESaren gordailuen murrizketa sakona egitea lortu dute.


HIESa birus batek sortzen du. Honek gaixotasunei aurre egiteko sistema osatzen duten zelulak suntsitzen ditu, gorputzak infekzioen aurka aritzeko duen babesba galduz. Gaur egun, HIESa tratatzeko sendagai antirretobiralak erabiltzen dira, birusaren biderketa ekiditen dutenak, gorputzako birusaren kontzentrazioa maila baxu batean mantenduz. Baina birusa gai da gordailu bezala era latentean ezkutatu mantentzeko, hau da, biderkatzeari utzi eta itzalita egon daiteke urteetan zehar, eta nahi duenean aktibatu eta berriz ere biderkatzen hasi daiteke. Honen harira, gaur egungo ikerlarien itu nagusia birusaren gordailu latente horiek guztiz suntsitzean datza, gaixotasuna sendatu ahal izateko.

Ikerketa honetako pazienteek, HIESaz aparte, odoleko gaixotasun ezberdinak pairatzen zituzten,

kimioterapia bidez tratatu zirenak inongo emaitzarik gabe. Azken saiakera bezala, hezur muineko zelula amen transplante bat egin zitzaion, odoleko gaixotasuna sendatuz eta, era berean, HIESaren birusaren gordailuak erabat murriztuz, sei gaixoetako bosteri.

Ikerlarien esanetan oraindik goiz da HIESa sendatu dutela adierazteko, prozesu osoan zehar gaixoek tratamendu antirretobiralak hartzen jarraitu dutelako. Ondorioz, ikerketaren bigarren zatia, tratamendu hori kendu eta oraindik ere birusa agertzen ez den egiaztatzea da. Bestalde, ikerketan parte hartutako gaixoen egoera berezia ere aztertu beharra dago, odoleko gaixotasunak zituztelako HIESaz aparte. Beraz emaitza hauek HIESaz soilik kutsatutako beste gaixoei nola helarazi ere argitzeke dago, nahiz eta lortutako aurrerapenak oso esanguratsuak diren birusaren aurkako estrategia bat garatzerako orduan.

Albistean gehiago sakondu nahi duenak, “Annals of Internal Medicine” aldizkari zientifikoan eskuragarri du artikulua (DOI:10.7326/M18-0759). Jo beti jatorrizko iturrietara, hainbat komunikabidek gaiaren inguruan gaizki-ulertu asko sortu dituzte eta!



OHOLTZAZ OHOLTZA

AZAROA

A photograph of a hand raised in a crowd, silhouetted against a warm, orange sunset sky. The hand is wearing a dark watch. The background is a blurred crowd of people, suggesting a festival or concert. The entire image is framed by a white border.

GAZTEON!

...ETA KITTO!

Egilea: MALEN ILLARRAMENDI

MUGI PANDEROA

PARRAPAS



OHOLTZAZ OHOLTZA

Musika munduak badu etorkizunik Eibarren; izan ere, denbora laburrean bi musika-talde jai dira gurean; gazteek osatutakoak dira biak; ausartak eta ekintzaileak, parte-hartzaileak. Mugí Panderoa eta Parrapas taldeez ari gara. Dagoeneko herrian guztiz ezagunak ditugu bata zein bestea, eta zein baino zein gogotsuago ari dira lanean, hasitako bideak jarraipena izan dezan.

Aurkezpen handirik behar ez duten arren, euren oinarrizko datuak emango ditugu, zaharrenetik hasita berrienera, taldeen ibilbidea hobeto ezagutzeko.

Mugí Panderoa 2014. urtean sortu zen, hainbat lagun elkar-tu eta nork bere kontura egiten zuen musika batu eta jendeari



Mugí Panderoa

helarazteko asmoz. Hasieratik hona aldaketatxo batzuk egon dira taldean, eta gaur egun 6 lagunek osatzen dute: Bartolok trikia jotzen du, Mirenek panderoa eta ahotsa jarri, Andonik baxua, Markelek bateria, Xabierrek gitarra eta Alaitzek saxofoia. Esan beharrik ez dago oso giro ona dagoela taldeki-deen artean eta horrek eragina duela talde gisa funtzionatzeko orduan.



Parrapas taldea

Parrapas taldeak, bietatik gazteenak, urtebete baino ez du, baina martxa ona darama bide labur horretan. Bost kide ditu taldeak: Marina trikitilaria, Julen pandero-jolea eta abeslaria, Egoitz gitarra-jotzailea, Alex baxu-jolea eta Josu bateria-jotzailea. Gazteak dira oso bertako musikariak, baina burua bere lekuan dutela antzematen da: ideiak argi, helburuak finkatuta eta lanerako gogoia, hori guztia musika ardatz hartuta.

Parrapas eta Mugí panderoa. Ez dira edozelako izenak eibartarrek aukeratutakoak! Nola hautatu zituzten eurei galdetuz gero, Parrapasekoek honela diote: *“Eibarko herrixari omenaldi moduko bat egingo zetsan izen bat ipiñi nahi genduan, eta horretarako Eibarren oso ohikua dan “parrapas” izena atara zan, eta danori gustau*

jakunez, aurrera egiñ genduan izen horrekin”. Mugí Panderoak ere antzeko zerbait dio: *“Brainstorming moduko bat egiñ eta gero, Mugí Panderoa proposamena atera zan Mirenen ahotik, eta danon gustokua zanez, horrekin geratu zan gure taldea”.*

Eta, non biltzen dira artistak ekitaldiak behar bezala prestatzeko? Parrapas-eko kideak, nahiz eta Musika Eskolan entseatzen hasi ziren, gaur egun Ermuko Betitxarto lokaletan elkartzen dira saioak prestatzeko. Aitortzen dute etxetik urrutitxo geratzen zaiela, baina gustura joaten direla. Mugí Panderoa taldekoak, berriz, Eibarren bertan biltzen dira, Legarre auzoko entsegu-geletan. Astean hiru bat aldiz geratzen dira hilabete-ko kontzertuak prestatzeko.

Diru-kontuei dagokienez, bi taldeak bat datoz: *“Ez dogu iñolako diru-laguntzarik jasotzen; aitzitik, dirua guk lortu eta kudeatu behar dogu”.* Parrapasekoek azaltzen dute askotan euren poltsikoetatik baino gurasoenetatik ateratzen dituztela xoxak, nahiago baitute eurek irabazitakoa gorde, behar denean erabilgarri izateko. Mugí Panderoaren kasuan, ekitaldietan irabazitako dirua lokala,

materiala eta horrelakoak ordaintzeko erabiltzen dute, eta eskuratutakoaren zati bat inbertitu egiten dute hileroko-hileroko.

Jatorri bera izanda, antzerako helburuak eta musikamota bera jota, batek baino gehiagok zalantza izango du talde biak elkarren etsai ala osagarriak diren. Eurei galdetuta, argi dute erantzuna: *“Lehia puntu bat egotia ona da, azkenian espabilau egitten gaitu horrek. Bi taldiak egitten dogu musika mota bera, baina bakoitzak bere bidia egitten dau”. Benetako lehia, alegia, hitz horrek daukan adiera nebatiboa, berriz, ez omen dago euren artean: *“Ez, hori ez da existitzen gure artian. Askotan gehixau da jendiak uste dabena benetan dauana baiño; jendiak berba la-**

rregi egi-tten dau... Gu, gainera, elkarren kontzertuetara jauten gara. Hortik atara kontuak!”.

Etorkizunerako planei buruz galdetuta, Mugi Panderoak kostata erantzuten du: *“Oin momentuan ez dakagu helburu zehatzik finkatuta; printzipioz hurrengo urteko uda aurtengua bezaiñ ondo juatia eskatuko genduke”.* Parrapaseko kideek, ostera, ez dute zalantzarik: *“Etorkizunian gure estilua aurkitzia eta kanta propiuk sortzia da guria, eta hori guztia gure publikuari transmititzia”.*

Denok dakigu esparru guztietan dela garrantzitsua zabalakundea egitea, eta musika arloan ere horrela gertatzen da, are gehiago, hasten ari diren taldeentzat. Dudarik gabe,

sare sozialak primerako baliabideak dira horretarako, eta talde biek baliatzen dituzte komunikazio-tresna gisa, batez ere Instagram eta Facebook-eko kontuak: *“Bai ekitaldixen barri emoteko (ordua, data, tokixa...), bai entseguetako erretratu eta bideuak igotzeko, “txorakerixak” egitteko...”.* Azken finean, helburua jarraitzaileak momentu oro informatuta edukitzea da, jakin dezaten zer, noiz, eta non egiten duten, eta baita entretenitzea ere.

Etorkizun oparoa opa diegu gazte ekintzaile hauei, izan dezatela merezitako lekua musika arloan eta guk, bitartean, goza dezagula euren doinuez ohol-tzaz oholtza.



ERREPORTAJEA ONLINE

Erromeria talde hauen esperientziak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi, ez ezazu galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.

Hona hemen link-a:

<https://youtu.be/qLoLratCRaA>

IKUSI BIDEOA ETA EMAN IZENA KANALEAN!

ZER DAKIZU GURE HERRIAZ?



MIKEL BAENA

25 urte

#itxurakeria

Joan den astean askok ohi baino asteburu luzeagoa bizi izan zuten Domu Santuen zubiari esker. Hemendik hona zebiltzan. Eiffel dorrea, Coliseoa, Big Ben edo Brandenburogo atea bisitatu adibidez.

Zoritxarrez, lana zela eta, ni Eibarren gelditu nintzen egun haietan. Hala ere, bidai horietako argazki mordoa ikusi ditut. Han egongo banintz bezala. Denak sekulako irribarrekin noski.

Baina zenbat saiakera egin behar izan zituzten gustuko irudia lortu arte? Momentuaz gozatu ordez, alferrik galdu zuten denbora hura agian erreala ez den zorientasuna bestean aurrean erakusten saiatzeko.

Benetan ehundaka "datsegit" hutsal horiek hainbeste esfortzu merezi ote dute? Gainera gehienei zintzotasuna falta zaie. Kanean elkar agurtzen frogatu beharko lirateke laguntasanak...

Badira gutxi batzuk tentazio horretan jausten ez direnak. Niri dagokidanez, bizitza pribatuan egiten dudana uneoro kontatzea saihesten dut. Bigarren talde txiki horretako kidea izango naiz orduan.

Egia da noizean behin zuen hormetan nire argitalpenak agertuko zaizkizuela. Hori bai, normalean iraganeko oroitzapenak gogorarazteko edota esperimentu sozialak egiteko erabiltzen ditut.

EZAGUTZEN AL DUZU....

EIBAR ?



Eibarko herriari buruzko hainbat galdera bururatu zaizkigu, eta zuekin partekatu nahi ditugu, herritarrek Eibarra buruz zenbat eta zer dakigun jakiteko. Zuen erantzunak aldizkarian bertan idatzi, eta bidali argazki baten bitartez e-mailera (gazteonetakitto@gmail.com). ZOZKETA batean sartuko zarete, eta hurrengo egunetan emango dugu jakitera irabazlearen izena sare sozialen bidez!! SARIA: Abenduaren 15ean Astelena frontoian egingo den GIPUZKOAN GAZTE-TOUR musika ekitaldirako **2 SARRERA**. Bertan, Parrapas, Ba!Goaz, Twin Melody eta DJ Txurru izango dira. Animatu!!!

1. Urkoren siluetan zeinen aurpegixa agertzen da?
2. Nun dagoz Eibarko Musikari Gaztien Elkartiaren entsegu-lokalak?
3. Ze hiru norabide ditu Maltzagako errotondiak?
4. Bariantia hartu ezkerre, zenbat tunel dagoz Azittaindik Legarrera?
5. Eibarko astekari euskalduna.
6. Eibarren zelan esaten da "Guraizeak"?
7. Zenbat aurpegi ditu San Andreseko kanpantorreko erlojuak?
8. Ze kaletan ipiñi zan lehenengo aldiz Eibarren "Kebab" bat?
9. Nun egon zan Eibarko lehen gaztetxia?
10. Zein sortu zan lehenago, Gipuzkoa ala Eibar?

1.	2.	3.	4.	5.
6.	7.	8.	9.	10.



gaztekitto



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!



196 parte-hartzaile izan zituen VI. Asier Cuevas herri-lasterketak

la neguko sasoia ekarri zigun eguraldiak Asier Cuevas herri-lasterketaren seigarren edizioan. 156 atleta ausartek aurre egin zioten, eurretako 26 emakumezkoak. Jakina, eibartarrak nagusitu ziren parte-hartzaileen artean: 44 izan ziren ingurutik etorritakoak. Zazpi kilometro eta erdiko lasterketak amaiera berezia izan zuen, probari izena ematen dion Asier Cuevas Julen Teranekin helmugaratu baitzen, biak eskutik helduta. 25 minutu eta 17 segundo behar izan zituzten helmugaratzeko eta handik 14 segundora sartu zen Pello Berrizbeitia, hirugarrena podiuma osatzen. Emakumezkoetan Ainhoa Sanz urretxuarra izan zen lehenengoa (28'16") eta atzetik sailkatu ziren Aitziber Urkiola (22 segundora) eta Maria Gallastegi (bi minutu eta erdira).





Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

IDOIA URIGUEN OSA (2015-XI-8)
- 3. URTEURRENA -

Gorputza
hemen utziagatik
Arima duzu
zeruan
Guretzat toki bat
gorde zaiguzu
Bizi zeran
inguruan

*Betirako gure
bihotzetan
Betirako gure
eredu*



FAMILIAK

Euskal Herriko mendi politenak inoiz baino eskurago



Lau urte behar izan dituzte Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoek Euskal Herriko 100 mendi ederrenen inguruko informazioa biltzeko, "hasieran bizitza guztirako izango zela pentsatzen genuen proiektua amaitzeko". Urriaren 25ean aurkeztu zuten Deporren bertan ekimenaren emaitza, aipatutako mendi horietara joateko edozeinentzat gida ezinhobea bihurtuko dena. deporeibar.com/mendiederrenak web orrian daude mendizaleen taldeak jasotako mendietako ezaugarri nagusienak: Nafarroako 27 mendi daude bertan, Gipuzkoako eta Araba-

ko 21na, Bizkaiko 20 eta Iparraldeko 12. Baten bati bururatu zitezaion gehiketa egiten hastea, ezta? Eta 101 emango dio, bat erregalo. Udalaitez bitan agertzen da: Bizkaiko eta Gipuzkoako zerrendan, muga kokatuta dagoelako, Arrasate eta Elorrioren artean.

Andoni Zendoia, Julian Etxeberria eta Angel Treviñok abian jarri zuten proiektua, baina handik gutxira beste mendizale batzuk gehitu eta dozena bat inguru izatera heldu zen taldea. Gainera, "jubilatuta egonda" ondo aprobeztatu zuten euren egoera txangoa asteko edozein egunetan egiteko. Irteerak egiteko WhatsApp

taldea osatu eta gutxienez bi GPS eta argazki-kamara eraman izan dute irtenaldi bakoitzean. "Irteera, gurutzbideak, muinoak, mendigainak..." gutzia joan izan dira jasotzen. Eta hor ez zen lan guztia amaitzen, "gero etxean GPS-aren ibilbidea ordenagailuan deskargatu, track-a orraztu eta informazio guztia hodeira igo aurretik".

Aurrekotik sortu dituzte fitxa zabalak, datu tekniko eta bitxitasunez betetakoak, euskeraz eta gazteleraz kontsultatu daitezkeenak. Mendi bakoitzaren altuera, ibilbidearen iraupena, osatutako distantzia eta pasu garrantzitsuenekin batera, mapa batek eta ibilbidearen perfilak osatzen dute informazioa. Mendigain bakoitza egun bakar baten eta oinez lasai egite-

ko modukoa da: "Karrion barririk erabili behar izan dugu soka, puntu bat ziurtatzeko". 2014ko otsailaren 6an eman zioten hasiera proiektuari, Eibartik Intxortara joan eta handik Bergarara jaisteko, eta Urko gainean, etxetik gertuenean, itxi zuten ekimena. Irteera bakoitzean gaina egin zuten mendizaleen izenak ere ageri dira fitxetan. Hori gutxi ez eta non bazkaldu zuten eta prezioa ere kontsultatu daiteke. Leku bakoitzaren informazio osagarri asko, ikusten denez. Ez dute istripu bakar bat ere izan ibilitako 1.315 kilometrotan, eta 428 ordutan 91 kilometro egin dituzte. Eta kontuz, gustua hartu diote-eta! Beste ehun osatzen hasi dira: "Hogei osatu ditugu dagoeneko".

ARABA: Aratz, Arrigorrista, Baio, Cueto, Dulantz, Gallarraga, Joar, Kapildui, Karria, Larrasa, Marinda, Muela, Oketa, Orisol, Peñalta, Repiko, San Kristobal, Tellamendi, Toloño, Ungino, Vallegurul.

BIZKAIA: Alluitz, Anboto, Eretza, Ganekogorta, Ganeran, Gantzorrotz, Gorbeia, Illuntzar, Iturrigorri, Jata, Kolutza, Lekanda, Motxotegi, Mugarra, Oiz, Ranero, Sollube, Udalaitez, Untzueta, Zalama.

GIPUZKOA: Adarra, Aitxuri, Andarto, Arranoaitz, Balerdi, Buetraitz, Elorreta, Erlo gurutzeta, Erroilbide, Ganboa, Gorostiaga, Hernio, Intxorta, Ipulino, Irimo, Izazpi, Kurutzebakarra, Txindoki, Udalaitez, Urepel, Urko.

IPARRALDEA: Adartza, Arthanolatze, Auñamendi, Baigura, Behorlegituturru, Barazea-Sardekagaña, Etxekortea, Iparla, Jara, Lakhura, Larrun, Okabe.

NAFARROA: Abodi, Adi, Alba, Alkaxuri, Alkurruntz, Arangoiti, Arxuria, Baigura, Barrendi, Beriain, Bianditz, Ezkaurre, Hauza, Hiru Erregeen Mahaia, Idoia, Intzako Dorrea, Itzaga, Kartxela, Lindus, Mendaur, Montejurra, Orhi, Ortanzurieta, Putterri, Saioa, Txamantxoia, Urkulu.



Mendi batzordeko ordezkari batzuk aurkezpen ekitaldian. Silbia

Domusantuko zubian 19 mendizale Leonen izan dira

Azaroaren 1ean 19 lagunek ekin zioten Leonerako txangoari. Goizeko 05:00-etan Vegacervera herrira jo zuten, bertan aterpe hartzeko: Valdeporquero haitzulo ospetsuetatik gertu dagoen inguru izugarri eder batean kokatuta dagoen herrixka da. Lehenengo egun horretan 1.953 metroko El Fontun mendi tentea igotzeko aprobe txatu zuten. Gete herrixkatik gora erreka barrenetik mendate bateraino iritsi ziren, elur biguna oztopo zutela. Leongo Kantauri mendi lerro horretan bakardade sentazioa handia dela diote Deporrek mendizaleek: *"Tamalez, mendiko artzaintza eta abelgorri eta gainerako abereen larreak asko gutxitu dira: gaur egun erratza eta kinarra dira nagusi. Otsoek eta hartzek pasagune dute paraje hori"*. Bi talde egin zituzten muinotik gora; batzuek Salgeron (1.769) egitera jo zuten; besteek aipatutako Fontun. Talde bakoitzak, gainera, talkiewalkie-a zeraman elkarren berri zehatza izateko: *"GPSaren laguntza ere ezinbestekoa da han, oro har, bideak markatu gabe daudelako guk ulertzen dugun eran"*. Gailurretik Ubiña mendiak, Pajaresko mendate aldea eta, beheko zuloan, Cármenes herri txukuna eta euren jomuga ikusteko aukera izan zuten.



Azaroaren 2an, Collada de Cármenes mendateetik (1.331) ekin eta Alto de los Escollos-era iritsi ziren. Hurrengo sigi-sagak Pico de La Carbarantz (1.927) eraman zien eta, gainez gain Peña de los Bueyes ikusgarria igo zuten (1.949). **Azaroaren 3an**, eguraldi ederraz, Conseco herritxora jo zuten, handik 1.535 metroko Palombera mendatera iristeko. Muino batetik, Canales (1.995) mendi tontorrera heldu ziren eta, "oraingoan elur soila baina sakona zapalduz", La Morala (2.144) erpinera iritsi

ziren. Goitik beherako azkarrean, 1.300 metrotan dagoen Redipuestas herri "aski" galdura iritsi ziren. **Azaroaren 4an**, hurbil zuten Pajares mendatera jo zuten (1.358), Cellon (2.021) mendia altxa eta Eibarrerako bidea hartzeko. Baina gerrirainoko elurrak eta eguraldi okerrak atzera itzultzea ekarri zuten La Pedrera gainean zeudenean, ia 1.900 metrotan, bi ordu neketsuaren ostean. Autobusera itzuli, aldatu eta Sahagunen bazkaldu ondoren, Eibarren zeuden iluntzerako.

Periko Iriondo



Mirandaola-Arantzazu Gaztaren Ibilbidearen laugarren etapa egin zuten


Urriaren 20an egin zuten etapan 35 lagun elkartu ziren Legazpitik abiatu zen ibilbidea osatzeko. Behelainoa nagusitu zen eguna izan zuten eta hura izan zuten lagun egun osoan; hala ere, "Duru aldetik igo zutenek eguzki pixka bat ikusteko aukera izan zuten". Irteera bakoitzean zozketatzen duten gaztarekin jarraituz, oraingoan Juan Miguel Maguregi izan zen ozorionekoa. Hilabete honetan beste bi irteera izango dituzte, bosgarren (Arantzazu-Otzaurte) eta seigarren (Otzaurte-Lizarrusti) etapak osatzeko. Izena eman dezakezue!

AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

8. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara gure bihotzetan"

ETXEKOAK



Ipuruako gimnastak denboraldiko lehenengo hitzordu handiaren aurrean daude Murtzian

Oinarrizko kadete mailako boskotea itxaropentsu joan da Murtzian atzotik domekara arte jokatzeko diren taldekako Espainiako txapelketetara. Horretarako ondo prestatuta daudela erakutsi zuten aurreko domekan Lizarran irabazitako Kluben Arteko Nafarroako Txapelketan: denboraldia hasi zenetik bost arorekin prestatutako ariketa gero eta bikainago atera zaie eta berriro erakusteko asmoa dute Ainhoa Bizkarra, Izaro Altuna, Arrate Baskaran, Mainer Diez eta Ana Portuk. Bihar 10:00etan neguko denboraldia borobiltzeko aukeraren aurrean izango dira. Senior mailako taldea ere Murtzian dago, oraingo honetan

taldekako Espainiako Kopako hirugarren fasea jokatzeko (komunitate edo elkargo baikoitzetik bi ordezkari daude); prestatutako ariketan bost maza pare erabiliko dituzte.

Ipuruako juniorrek, bestalde, hirugarren sailkatu ziren aipatutako Nafarroako txapelketan. Boskote horrek bost zintekin dihardu lanean azkenaldian, urriaren 20an Logroño Hirian zilarrezko domina eskuratzeko balio izan zien ariketarekin. Abenduan Iruñean jokatu den Espainiako Txapelketa dute helburu batez ere. Nahia Gonzalez jubenilak, bestalde, zilarra lortu zuen Guadalajarako Maite Nadal izenekoan eta brontzea Xixili Torneon.



Oinarrizko kadete mailako taldea.



Bergarako San Joxepen izan zen aurreko tiraldia.

Barinagako bolatokia jokatu da euskal txapelketako hirugarren jardunaldia

Bihar 16:15ean (ohikoa baino hiru ordu laurden arinago, bolari kopuruarengatik) Markinako Barinagak hartuko du Euskal Herriko 29. hiru-txirlo txapelketako tiraldi berri bat, eta Asola Berrikoek euren onena eman beharko dute goiko postuetara hurbiltzeko, orain arte jokatuak jardunaldietan ez dutelako larregi asmatu. Bittor Astigarraga eta Juan Luis Rodriguez dira Eibarko ordezkari onenak (8. eta 9. postuan), sailkapenean agintzen duten Elgoibarko San Migueleko Unai Loiola eta Angel Ibarluzearengandik lau txirlora. Binakako sailkapenean, bestalde, Felix eta Beñat Gomezek osatutako Asola Berri D bikotea hirugarren postuan dago Elgetako bikotearengandik hiru txirlora.

Domeketako patinajearen denboraldia hasi da

Urtero lez, azaroan hasi eta martxoan amaitzen diren (ordutegi aldaketaren sasoian, beraz) patinaje saioak domeka arratsaldetan egingo dira, 18:00etatik 20:00etarako ordutegian. Guztira 20 domeka hartuko ditu Udal Kirol Patronatuak antolatutako ekitaldiak eta umeei patinak jartzea guraso edo tutoreen ardura izango da eta ez begiraleena.



Guztira 20 domeka hartuko ditu patinaje sasoiak.



Parte-hartzaile batzuk Muru gainean.

Udazkentraila negu giroan egin zuten

Eguraldi hotza eta euritsua izan zuten Udazkentrailean parte hartu zutenek; baina, hala ere, "gozatu ederra" hartu zuten ibilbideak eskaintzen zien edertasuna bizitzeko. Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako irtealdian izena eman zutenek ez dira kokiltzen diren horietakoak eta ondo aprobeztatu zuten aukera "ezezaguna zuten Moru tontorra eta Saturixo erreka inguruak" ezagutzeko. Hurrengo trail irteera negukoa izango da, betiko moduan abenduaren 24an jokatu den Gabontraila.

Federatuen pilota partiduak gaur Astelenan

Gipuzkoako Kluben Arteko txapelketaren barruan hiru partidu hartuko ditu Katedralak gaur 19:00etatik aurrera, lehenengo buruz-burukoa eta beste biak binakakoak. Hiruretan Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak izango dira jokatzeko: hasteko, Ibon Ibarra infantilak Arrasateko ordezkariarekin neurtuko ditu indarrak, bere laugarren garaipena lortzeko asmotan; jarraian, Camina-Azkargorta Eibarko kadete mailako bikoteak Lazkaoetik etorritako LAPKE bertako klubeko bikotea izango du aurrez-aurre (Eibarko bikoteak orain arte jokatuak sei partiduak irabazi ditu); eta, amaitzeko, helduen arteko norgehiagokan, Narbaiza eta Gaztañaga (Agiesarobek min hartu zuen aurreko astean Tolosan) nor baino nor borrokatuko dute Donostiako Izurun taldeko ordezkariarekin. Herriko pilotariak ikusteko aukera polita, beraz, sarrera ere doan delako.



Ibon Ibarra

24-23 irabazi zion Somos Eibar Eskubaloiak Elgoibarko Alcorta Group-eri Ipuruan

Bai auzokoek bai gureek ez dute euren sasoi onena bizi une honetan eta, sailkapeneko goi postuetan egotera ohitu eta gero, oraingoan jaitsieratik ihes egiteko borrokan sartuta daude burubelarrari. Horregatik, garrantzi handiko garaipena lortu zuen Somosek azken jardunaldian, denetarik izan zuen partiduan, elgoibartarren aurrean. Bi puntu horiei esker, eibartarrek Alcorta Group-ekin berdindu dute sailkapenean. Atsedendian eibartarrak nagusi ziren 15-10, baina horrek ez zuen partidu amaiera lasairik ekarri, eta 10 segundoren faltan sartu zuten gol erabakigarria. Axier Gisasola eta Jon Barruetabeña izan ziren onenak.



Lau kadete euskal selekzioarekin

Eibar Eskubaloiko lau jokalarikadete mailako euskal selekzioarekin izan dira azken aldian: Leire eta Ane Treviño nesken taldean eta Jokin Aja eta Markel Valenciano mutilenean izan dira jauzi berri hori eman dutenak.

Urbateko waterpolistak Bidasoa baino gehiago izan ziren Orbean

Azken asteburuan gizonezkoen lehen taldeak 4-10 irabazi zuen Leioan, baina emakumezkoenak amore eman zuen Orbean, WP 9802 taldearekin 10-15 galtzeko. Emaizta horiekin, batzuek zein besteek sei puntu dituzte euren sailkapenetan, orain arte bi partidu irabazi eta bakarra galduta. Aurreko asteburuan, bestalde, garaipen argiak lortu zituzten Urbat Urkotronik-eko lehen bi taldeek Orbeako igerilekuan jokatuak waterpolo partiduetan. Kasu bietan aurkaria Bidasoa XXI zela kontuan izanda, meritu handiko garaipenak izan ziren: emakumezkoek 16-3 gailendu ziren eta Euskal Herriko 1. mailako ligako liderrak dira, eta gizonezkoek ere maila eman zuten 19-6 nagusituz. Jubenil mailako taldeak jardunaldia borobildu zuen, kasu horretan estuasun handiagoarekin, Waterpolo Navarrari 8-7 irabazita.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Valladolid - Eibar (bihar, 13:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Oiartzun - Eibar (bihar, 15:30)

2. B Maila

Oviedo B - Vitoria (etzi, 16:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Ostadar - Eibar (etzi, 11:30)

Ohorezko Erregional Maila

Mondragon - Eibar (etzi, 17:00)

1. Erregionala

Urki - Segura Goierri (etzi, 17:30)

Elgoibar - Eibartarrak (bihar, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Getxo (etzi, 15:30)

Euskal Liga

Eibar - Danok Bat C (bihar, 16:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Santutxu - Eibar (bihar, 18:00)

FOBALL-ZALETUA

Larragest - Adahi Azkena (bihar, 09:00)

La Jara - Slow XOK (bihar, 10:30)

Feredu - JMR Erreformak (bihar, 12:00)

Ipur - Garajes Garcia (etzi, 09:00)

Chic - Durango (etzi, 10:30)

Los Paisanos - Bar Areto (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Barakaldo - Somos Eibar (bihar, 18:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Egia - Eibar Eskubaloia (bihar, 16:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Munttarpe - Haritza (bihar, 18:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar - Vigo (etzi, 12:30)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

Avia Saskibaloia - Mundarro (bihar, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - WP Navarra C (bihar, 20:35)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Larraina - Urbat IKE (etzi, 16:30)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

Eibar-Sevilla hiru egunetan

Domekan 10:00etan irtengo da Untzagatik eta eguaztenean Sevilla hartzeko asmoa du Jose Antonio Fernandez "Nenek", 1 motako diabetesarekin Ultraman bat amaitzeko gai izan den lehenak munduan. Eta-parik gabeko 1.000 kilometro horiekin gaixotasunarekiko kontzientziazioa bultzatu nahi dute eta Eibarko Txirritularitza Elkarteak irteeran egoteko deia egin du.

Oraindik zabalik dago Euskaraldian izena emateko epea. Oso erraza da: www.euskaraldia.eus edo www.akebai.eus webguneetan sartu eta izena eman behar da aurretik aukeratutako rolari dagokion atalean (Ahobizi, Belarriprest, Bihotzgoxo). Mireia Alonso sukaldari eibartarra Belarriprest izango da. Horrek esan nahi du 11 egunetan (azaroaren 23tik abenduaren 3ra) euskal hiztun guztiei euskaraz egiteko eskatuko diela.

MIREIA ALONSO, EUSKARALDIAREN HAMAIAKAKOAREN ENBAXADOREA

“Euskaraz egin behar dugula gogoratzeko baliogarria izango da Euskaraldia”

- Belarriprest izango zara Euskaraldian eta 11 egunetan rol horri dagokion txapa erabiliko duzu. Hala ere, lanean ere denboratxo bat daramazue horrelako txapak erabiltzen, ezta?

Teknikerren Euskara Batzordea daukagu, eta orain dela hiru-lau hilabete ari gara Belarriprest eta Ahozibiziren txapak erabiltzen. Astan behin, asteazkenetan jartzen dugu txapa. Helburua euskararen erabilera ohitura berriak sortzea da eta oso ideia ona dela uste dut: euskaraz egiten badidate euskaraz erantzuteko obligazioa edo konpromisoa hartzen dut nik. Maiztean, Tantanez Tantan ekitaldia aprobetxatuta, Euskaraldiaren aurkezpen ofiziala egin zen Eibarren eta hor ere Belarriprest moduan parte hartu nuen. Urkusuko iturrian gantxila betetzen egon nintzen Ahozibiziren rola betetzen zuen Leire Alberdiren batera. Uda aurretik, Eibarren sortu zen Euskaraldiaren Hamaikakoan enbaxa-

dore izateko deitu zidaten. Nola esango nuen ezetz?

- Nolako harremana izan duzu euskararekin?

Etxean euskaraz eta gaztelera berba egiteko aukera izan nuen, baina errazagoa egiten zitzaidan gaztelera egitea. Txikitik oso berritsua izan naiz eta berehala jartzen nuen erdarara. Sasoi hartan euskara bigarren maila batean ikusten nuen, ez nion garrantzirik ematen. Ikastolara joan nintzen, ondo ulertzen nuen eta horrekin nahikoa zela uste nuen. Ez nuen euskara erabiltzeko beharrik ikusten. Arrateko Krabelin jatetxea izan nuenean hasi nintzen euskara gehiago erabiltzen. Orain Teknikerren ekimen desbedinak egiten ditugu euskara gehiago erabiltzeko. Sukaldean menuak euskaraz eta gaztelera ditugu, ostalaritzako hiztegia...

- Beraz, gogotsu zaude Euskaraldian parte hartzeko.



Jakina! Oso ekimen garrantzitsua dela uste dut. Horrelako ekimenen bidez ohiturak aldatu daitezkeela uste dut. Lehen erderaz egiten zidan jende askok orain euskaraz egiten dit. Besteei mezu hau bidaltzeko modua da: “euskaraz ez dut oso ondo hitz egiten baina prest nago ikasteko, eta nolabaiteko konpromisoa hartzen dut euskaraz mintzatzeko”. Beldurra kentzea ezinbestekoa da eta dakienak jarraitu egin behar du ahal den guztia euskaraz egiten.

- Zeintzuk dira zure ustez euskaraz ez egitearen arrazoiak?

Arrazoiak bi dira nire ustez. Alde batetik beti errezeroa jotzen dugula. Eta, bestetik, txarto egiteko eta hanka sartzeko beldurra. Ohiturak aldatzeko polita izango da Euskaraldia eta euskaraz egin behar dugula gogoratzeko oso baliogarria.

Izena eman baduzu, azaroaren 23tik aurrera txapa jaso dezakezu honako leku hauetan:



AHOBIZI

11 egunetan, lehen hitza beti euskaraz egingo duzu, eta euskara ulertzen duten guztiekin euskara hutsean arituko zara.



BELARRIPREST

11 egunetan, dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu, zuk euskaraz zein gaztelaniaz erantzun arren.



BIHOTZGOXO

Durante 11 días, animarás a ahobizi y a belarriprest a que hablen en euskera entre ellos/ellas, aunque tú no lo entiendas. Cuando se dirijan a ti, lo harán en castellano.

EUSKARA ZERBITZUA

(Portalea 2. solairua)

...ETA KITTO!

(Urkizu Pasealekua, 11A)

UDAL EUSKALTEGIA

(Portalea 2. solairua)

AEK EUSKALTEGIA

(Sostoa-Tarren Kalea, 1)





*Hankamotxak
bertso-taldea.*



EUSKARALDIAREKIN BAT

Udal Euskaltegia.



Iturburuko jangelako lankideak.

TALDEEN
ARGAZKI
GEHIAGO
akebai.eus



*Untzagako
Jubilatuena
Etxea.*

ALFREDO LEON (diseinatzaile grafikoa):

“Kartel harrigarriak egiten saiatzen naiz, deigarriak”

Alfredo Leonek marra bat eta bi kolore besterik ez ditu behar izan San Andres jaiak irudikatzen. ‘Zaldi eta tipula’ lana sortu du artista nafarrak eta herriko kaleak apainduko ditu aurtengo Sanandresetan. 11 eta 14 urte bitartekoen artean Martina Garate eibartarrak irabazi du “Berdura dantza” lanarekin, eta 10 urtera arteko mailan Maddi Etxaniz eibartarrak lortu du saria “Azoka” kartelarekin.



- Aproposa iruditzen zaizu kartela aztertu eta deskribatzea, edo ikusle bakoitzak bere interpretazioa egin dezala nahiago duzu?

Printzipioz, kartelak ez lirateke esplikatzen behar. Kartelek komunikatzeko funtzioa daukate eta kartel harrigarriak egiten saiatzen naiz, deigarriak. Gero, lanak aztertu daitezke atzean izkutatzeko dutena edo bere mezua zein den jakiteko.

- Zer aipatuko zenuke San Andres jaietako kartel irabazleari buruz?

Kartel ausarta dela esango nuke. Sanandresen inguruko kontuak sintetizatzen saiatu naiz eta, horretarako, kurba egiten duen marra bat egin dut kartela bi zatitan banatuz. Lana aurkeztu nuen beldurra neukan, ez nekielako epaimahaiak kartelaren esanahia ulertuko zuten edo ez. Tituluarekin laguntzen saiatu nintzen (‘Zaldi eta tipula’) pista bat emateko. Nire asmoa zein zen ondo ikusten zela aipatu zidaten epaimahaiak eta pozik geratu nintzen.

- Beraz, arriskatuak saria izan zuen?

Ez nuen espero, baina horrela izan da eta eskertzekoa da.

- Zertan inspiratu zara kartela egiteko orduan? Sanandresetan Eibarren egozara zara?

Eibar ezagutzen dut, baina inoiz ez naiz San Andres jaietan egon. Lizarran ere ospatzen dira eta horrek bai ezagutzen ditut. Azken finean abereak eta nekazaritza nagusi diren azokak kontzeptu berdinen inguruan dabilta eta hortik abiatu nintzen. Lehiaketa honetan parte hartzen dudana bigarren aldian da aurtengoa eta aurrekoan lan errealistagoa egin nuen. Beste modu batean irudikatu nahi nituen horrelako jaietako elementu tipikoak eta uste dut errealtzioak eman didala garaipena. Kartel minimalista da, soila eta garbia. Kolore birekin eta lerro batekin San Andres jaien inguruko gauza guztiak irudikatzen saiatu naiz.

- Bide luzea egin duzu diseinu grafikoaren eta artearen munduan. Gozatzeko asmoarekin hartzen duzu parte lehiaketetan edo zure lanbidearen zati bat dira?

Sariak jasotzea ondo dago, baina horrelako lehiaketak ihesbidea dira niretzat.

Eguneroko jardunean bezeroekin hartu-emanen nago: epeak bete behar ditut, eskaerak egiten dizkirate, nire marka eta produktua saldu behar dut, eta abar. Lehiaketetan, ordea, nahi dudana egiten dut, sortzeko askatasuna daukat eta lagungarria izaten da etorkizuneko proiektuei begira gainera.

- Zer pentsatzen duzu zure kartelek jai batzuei irudia ematen dietela ikustean?

Lan onari egindako onarpena dela deritzot. Urte asko daramatzat diseinu grafikoaren munduan eta egiten dudana asko maite dut. Horrelako lehiaketa bat irabaztea pozgarria da. Batetik, zure kartelak jai batzuei irudia emango dielako. Eta bestetik, epaimahai batek zure irudia aukeratzen duelako. Horrek esan nahi du gauzak ondo egin dituzula. Musikari batek ondo jotzen duenean jasotzen duen txalo zaparrada bezalako da hori.

- Aurten Sanandresetara etorri beharko zara, ez?

Bai, derrigorrez! Elur asko egiten ez bada, Eibarren egongo naiz Sanandresetan.

Astehenean ospatuko dugu Gaztainerre

Ohiturari jarraituta, aurten ere Gaztainerre ospatuko dugu datorren astehenean. Untzagako jubilatuek 18:00etatik aurrera bazkide eta lagunentzat gaztaina erreak banatuko dituzte. Eta azken urteotako martxari jarraituko diote AEK euskaltegikoek, “Ondra janak tabernaz taberna” antolatuta. Parte hartzerantz animatzen direnak euskaltegi parean dagoen Paloma tabernan elkartzeko dira, 19:00etan, handik abiatuta trititilariarekin batera kalejiran ibiltzeko eta afari-merienda egiteko. Antolatzaileren berbetan, “asmoa gure ohitura zaharrei eustea eta euskera zabaltea da. Betiko moduan, euskal giroan ongi pasatzeko gogoia duen edozein gurekin bat egitera gonbidatu nahi dugu”.



Bestalde, gaztainak protagonista dituen “Festa do Magosto” asteburuan, zapatu arratsaldean eta domeka eguerdian egingo da Urkizun, As Burgas Galiziako Etxeko eskutik.



San Andres bertso-jaialdia azaroaren 25ean egingo da

...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres jaien bueltan urtero antolatzen duen bertso-jaialdia domekan izango da aurten, azaroak 25, arratsaldeko 18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian. Laukote bikainak jardungo du bertsoan Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara: Andoni Egaña, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Unai Mendizabal. Eta urteroko ohiturari jarraituz, jaialdia hasi aurretik, aurtengo San Andres bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira (datorren asteko alean emango ditugu ezagutzera irabazleen izenak). Sarrerak gaurtik aurrera eros daitezke 6 eurotan Sagar Bitza, Kultu eta Guridi tabernetan. Egunean bertan ere erosteko aukera izango da, Portalean.



Mairen Illarramendi

Piedad Santamariarentzat izan zen Aire Zabaleko Pintura lehiaketa

Leioako Piedad Santamariak lortu zuen XLI. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako lehen saria, helduen mailan. Urriko azken domekan jokatu zen lehiaketan 25 artista lehiatu ziren helduen mailan eta irabazleak garaikurra eta 800 euro jaso zituen. Bigarren saria (500 euro) Bergarako Juan Jose Altunarentzat izan zen, hirugarrena (400 euro) Ricardo Azkargorta bergararentzat eta laugarrena (300 euro) Erandioko Jose Miguel Arranzentzat. Gazteen artean, 18 urtera artekoen mailan irabazleak Ane Pascual (Donostia) eta Irati Uzkudun (Elgoibar) izan ziren. Eta umeen mailan (12 urtera arte) 15 neska-mutil lehiatu ziren eta saridunak Martina Garate eta Naroa Bengoetxea eibartarrak izan ziren. Eibarko Artisten Elkarteak, Udalaren laguntzarekin antolatzen duen lehiaketako epaimahaikideak Jose Luis Martinez de Antoñana, Angel Güenaga, Leire Kareaga, Iratxe Unanue eta Jose Agustin Larrañaga izan ziren.



"El rey muere" lana gaur iluntzean

Sarabela Teatro konpainiaren eskutik "El rey muere" antzezlana ikusteko aukera izango da gaur, 20:30ean, Coliseo antzokian. Ana Vallesek zuzentzen duen lan honetan Fernando Dacosta, Sabela Gago, Fina Calleja, Nate Borrajo eta Alfonso Miguez antzezleek egiten dute lan. Sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Lasergunera irteera

Indianokua gaztelekuak Bilboko lasergunera irteera antolatu du azaroaren 24rako. Izena eman nahi duenak gaztelekuera jo dezake (epea domekara arte egongo da zabalik). Irteeraren prezioa 15 eurokoa da.



Robotika tailerrak

Udalak robotikaren inguruko tailer teknologikoak antolatu ditu Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Tailerra Jazinto Olabeko ludotekan burutuko da (euskaraz), azaroaren 17an eta 24an eta abenduaren 1ean eta txanda bi antolatu dituzte: lehen txandan LH-ko 3. eta 4. mailako ikasleek hartuko dute parte eta 16:00etatik 18:00etara egingo da; eta bigarren txandan LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko dute parte eta tailerra 18:00etatik 20:00etara izango da. Robotika "Star Wars" tailerretan izena emateko epea azaroaren 12ra arte egongo da zabalik eta ikastaroaren prezioa 25 eurokoa da Eibarren erroladatuta daudenentzat (45 eurokoa besteentzat).

**● tartak**
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

**Bekak eta dirulaguntzak atzerriko programetarako**
www.afs-interculturala.org/becas

Eguna: azaroak, 10, larunbata
Ordua: 17:00
Lekua: Ipurua futbol zelaia Formakuntza gela Indalezio Ojanguren kalea, Eibar

Laguntzaileak:  **SDEIBAR** Fundazioa |  **Eibarko Peñen** Federazioa

Zatoz gu ezagutzera!



Hizkuntza ohiturak aldatzeko eusLider egitasmoa lantzen dihardute DBHko ikasleekin

AEK-Ahize hizkuntza zerbitzuak, Eibarko Udalak, AKEBAI plataformak eta ikastetxeek elkarlanean dihardute EusLider egitasmoan. **Proiektuak gazteen** hizkuntza ohituretan eragitea eta euskara gehiago erabiltzearen aldeko aldaketa sustatzea lortu nahi du eta Eibarko BHko lau ikastetxeetan (Aldatzen, Itzion, La Sallen eta Ignazio Zuloaga institutuan) DBH 3. mailako ikasle guztiak ari dira parte hartzen, 250 bat ikasle guztira. Egitasmoa arduradunen berbetan, *"hizkuntza ohiturak modu atsegin eta dibertigarrian aldatu daitezke, ez da ezinezkoa eta ez du zertan aspergarria izan behar. Horretarako, eta parte hartzaileen interes arlo eta motibazioetatik ahalik eta gertuen, helburu hauek lortu nahi ditugu: hizkuntzekiko begirune handiagoa izatea, hizkuntza portaera berriak sortzea eta gazteen hizkuntza-lidergoa indartzea"*. Aipatutako helburu horiek lortzeko, egitasmoak hiru fase dauka: *"Lehen fasean, erakundearen atxikimendua eta parte hartzaileen jakin-mina asetzeko kanpaina egiten da. Bigarren fasean aurrez aurreko hiru saio burutzen dira ikasleekin. Saio horietan portaeran aldaketa eragin dezaketen faktoreak lantzeko informazio esanguratsua ematen zaie, aldatzeko motibazioa landu eta horren beharra ikusarazteko. Hau da, aldaketa sustatzen da eta horretarako ereduak eta baliabideak eskaintzen zaizkie. Aldaketa*



Ignazio Zuloaga Institutuko eusLiderrak.

egingarria dela ikusteko eta trabak gainditzeko prestakuntza ematen diegu, besteak beste. Eta hirugarren fasean aurrez aurreko hiru saio gehiago egiten ditugu, izena eman duten boluntarioekin. Saio hauetan ekintza sozial bat garatzeko lanketa egiten da eta, amaitzeko, ikasleek aukeratutako ekintza burutzen da". Aste honetan eta hurrengoan, bigarren faseko azken saioak egingo dituzte Eibarren: astelehenean Itzioko ikasle txanda izan zen, martitzenean Ignazio Zuloaga institutukoena eta eguaztenean Aldatze ikastetxeoena. Laugarren eta azken saioa La Salle ikastetxeoekin egingo dute, martitzenean.

Hiru argazki erakusketa zabaldu dituzte Deporreko argazkilariek

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen eskutik, azaroan hiru argazki erakusketa ikusteko aukera izango da beste horrenbeste tabernatan: Jose Luis Irigoienek Pragako argazkiak Depor tabernan dauke ikusgai, Bakarne Elejalderenak El Ambigú tabernan eta Jose Antonio Palaciosen argazki erakusketa, berriaz, Portaleko jatetxean dago.



Eibar.org-ek egindako lana errekonozitu zuten Rikardo Arregi sarietan

Urriaren 26an Andoainen egindako ekitaldian Rikardo Arregi kazetaritza sariaren 30. urtemuga ospatu zuten eta, "30 urte - 10 mugari" lelopean banatutako sariaren artean, Eibar.org izan zen *"euskarazko kazetaritzaren historia garaikidea zedarritu duten hamar eragileetako bat"*. Luistxo Fernandezek jasozuen saria "Eibarko peoriaren" izenean eta honakoak izan ziren saritutako beste bederatzia: Anaitasuna aldizkaria, Argia, Ttipi-Ttapa, EHuko Gizarte eta Komunikazioa Zientzien Fakultatea, EITB, Elhuyar aldizkaria, Euskaldunon Egunkaria / Berria, Euskar Irriatiak eta Goiena.



Aranzabal, Mendikute, Laka, Fernandez eta Narbaiza ekitaldian.


Indalezio Ojanguren lehiaketako argazkiak Portalean

Azaroaren 18ra arte bisitatu daiteke Indalezio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketan saritutako argazkiak eta aukeratutako beste hainbat biltzen dituen erakusketa, Portalean. Aurtengo edizioan argazki bilduma onenari saria Irungo Andrés Indurainek eraman du, "Imaginando" izenburuko bildumarekin. Bere argazkiak, edizio honetan lehiatu diren beste lanekin batera, martitzenetik domekara bitartean ikus daitezke, 18:30etik 20:30era, Portaleko erakusketa aretoan.



Jawbone laukoteak joko du etzi Portalea musika-klubean

Londresen trebatutako lau musikariek osatzen duten laukotea izango da musika-klubeko denboraldi berriaren bigarren saioaren protagonista etzi arratsaldean, Portalean 19:30ean hasiko den kontzertuan. Paddy Milner (pianoa, akordeoia eta ahotsa), Marcus Bonfanti (gitarra eta ahotsa), Rex Horan (baxua eta ahotsa) eta Evan Jenkins-ek (batera eta ahotsa) jatorrizko gaiak eta beste abeslari batzuen bertsoiak eskaintzen dituzte, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko soinuen nahasketa paregabea, tartean rocka, countrya eta bluesaren doinuak eskainiz. Bere ibilbidean taldeak Tom Jones, Van Morrison, Ginger Baker, Dave Gilmore eta Ten Years After bezalako artistekin egin du lan. Horrez gain, euren lanetan Led Zeppelin, The Rolling Stones eta The Faces taldeetako musikaren eragina nabari daiteke.



Santiago Entrenaren akuarelak ikusgai Untzagako jubilatuetxean

Astelehenaz geroztik "Desde Oriente hasta Eibar. Acuarelas", Santiago Entrena eibartarraren akuarela erakusketa dago ikusgai Untzaga jubilatuen etxean. Egileak berak esandakoaren arabera, hamarkada bat baino gehiago pasatu da akuarelak margotzen hasi zela eta, bere lanetan batez ere Ekialdeko gaiak margotu arren, tarteka Europako hiriburuak eta Eibar eta inguruko tokiak ere irudikatzen ditu. Erakusketa azaroaren 17ra arte egongo da zabalik.

"Eibarko emakumeen aztarnak" 18ra arte ikusgai Portalean

'Eibarko emakumeen aztarnak' izenburuko erakusketa azaroaren 18ra arte egongo da zabalik, Portaleko bigarren solairuan dagoen erakusketa gelan. Gure herriko emakumeek his-

torian zehar izan duten protagonismoa eta herrian garatu duten ondarea (industria, damaskinatua eta grabatua, literatura, gizartea, musika...) nabarmendu nahi dituen erakusketa pinturak, eskulturak, argazkiak, bordatuak, damaskinatuak, argazkiak, diskoak, idatziak eta instalazioak bildu dituzte, besteak beste.



Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2019

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus



Getari Etxegarai eta Aitor Fernandino, euskal antzerki munduko bi izen handi izango ditugu datorren martitzenean (azaroaren 13an) Portalean, "ERBESTE edo saihets baten aldarrikapenak" antzezlanarekin. Anodino Teatroaren bigarren lan luzea da eta umore eta kritika soziala ditu osagai bezala. Saioa ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu du Illunabarrean kultur egitasmoaren barruan eta 19:30ean hasiko da, Portalea Kultur Etxeko Areto Nagusian, Eibarren Akebairen Batzar Nagusiaren ondoren.

AITOR FERNANDINO

(Anodino Teatroa):

"Emakumearen egoera ikusteko antzezlan da"

- Antzezlan hau Adonido Teatrotoren bigarren lan luzea da. 50 minututan bi aktore agertzen zarete taula gainean. Zer kontatzen duzue eta ze klabetan?

Bion arteko elkarrizketa da. Umorezko antzezlan da, kritika ahaztu gabe. Emakumearen egoera ikusteko obra. Adan eta Evaren harremana Adanen ikuspegitik kontatzen da beti. Baina oraingo honetan Evak bere ikuspuntua azaltzen du. Beraz, gauzak aldatzen direla ikusten dugu. Adan eta Evaren istorioa imaginarioa da, gure ustez, eta guk ere gure istorio imaginarioa egiten dugu. Gaur egungo egoerarekin parekatzen ahalegintzen gara.

- Beraz, umorea eta kritika soziala dira antzezlanaren osagai nagusiak.

2016an Donostiako Poltsiko Saria irabazi genuen lan honekin. Formato txikiko antzerkiak sortzea da Poltsiko Sariaren helburua eta umoreak garrantzia dauka. Gainera, Anodino taldearen zentzua edo zigilua umorezko lanak egitea da. Baina ez diogu uko egiten kritika

sozialari. Mahai gainean gure ikuspuntua jartzen dugu.

- Zuen aurpegiak aski ezagunak dira publikoarentzat. Zuk danetik egin duzue (antzerkia, telebista, zinea, publizitatea...)

15 urte daramatzat lanbide honetan. Umeentzako eta helduentzako antzerki asko egin dut, drama, komedia, kale-antzerkia eta baita zinea eta telebista ere... honetaz bizitzeko behar den guztia. Eta Getarik gauza bera. Urte mordoa daramatza antzerki munduan. Zuzendaria ere bada, eta esperientzia handiko aktorea. Oso gazte hasi ginen. Getari 18 urterekin eta ni 22rekin, ikasketak amaitu bezain laster. Klaseak ere ematen ditugu, aurkezpenak...

- Getxoko Antzerki Eskolan hasi zinen argi zenuen aktore izan nahi zenuela?

Argi neukan aktore izan nahi nuela, baina ez nekinen gai izango nintzen hau guztia egiteko. Zorte pixka bat behar duzu, lekuan egon eta horretarako balio izatea. Biok lortu dugu, bai Getarik bai nik, euskal antzerki munduan egotea.



Aitor Fernandino eta Getari Etxegarai (Adan eta Eva) Portalean izango ditugu martitzenean.

- Zer esango zenioke aktore izan nahi duen 17-18 urteko gazte bati?

Ikastea derrigorrezkoa da. Talentua izan dezakezu, baina talentu hori bideratu egin behar da, jakin behar da beste pertsonak ere badudela, taldea dagoela, antzerkiaren historia, bere ezaugarriak... Antzezlea izan nahi duenari esango nioke eskola on bat bilatzeko eta ehuneko ehuna eman behar diola. Antzerkian asko ikusten da bi karrera ikasten ari diren pertsonak direla, bat gustatzen zaiona eta bestea "badaezpada ere". Antzerkia gustatzen bazaizu dena eman behar diozu, eta gero ikusiko da.

- Egin dituzun gauza guzti horien artean non sentitzen zara erosoan?

Niri proiektuak gustatzen zaizkit, berdin da kale antzerkia edo zinea izan. Maitemindu egiten naiz proiektuekin. Bat aipatzea ezinezkoa litzateke, gehien maite duzun semea

zein den esatea bezala. Oso proiektu politak egon dira. Batez ere Anodino konpainiarekin egiten ditugun lan horiek erromantizismo puntu hori daukate, zuk ekoizten duzulako, zuk antzeztzen duzulako eta eskua bete-betean sartu dezakezula. Getari bere konpainiarekin edo zuzendari bezala egiten dituen lanekin ere oso maiteminduta dago.

- Nola animatuko zenituzke eibartarrak martitzenean (azaroaren 13an) Portaleko Areto Nagusira joateko?

Helduentzako lana da. Antzezlan txikia, formato txikikoa, baina maitasun eta ahalegin handiarekin egina. Publikoak ondo pasatzen du. Ez da ulertzeko zaila, nahiz eta testo asko izan. "Bolo" asko egin ditugu eta jendea beti oso gustora egon da. Beraz, euskara ikasten ari direnak, euskara dakitenak, antzerkia gustoko dutenak... denak animatuko nituzke.



San Martin Azoka bihar ERMUAN


Bihar, azaroaren 10en, San Martin nekazaritza azokaren 29. edizioa ospatuko da Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatuta Nekazarien postuez gain, era askotako produktuak aurkeztuko dituzte :ahatekiak, txerrikiak, lora lehorrak, produktu ekologikoak, mermeladak..., eta artisauen postuak ere izango dira, Horrez gain, ermuarrek zein inguruko bisitariek txistulari, soinujole eta dultzaineroen kalejirak, taloak, herri kirolak, KULKIren umeentzako jokoak, ASTObusa, TAKITTO taldearen erromeria, larraindantza.. eta horrek guztiak Ermuan eragingo duen giro apartarekin gozatu ahal izango dute. Euskal jantzien argazki lehiaketa ere antolatuko dute.



Gaztainerre azoka SORALUZEN

Hogeita hamabi postu izango dira bihar, azaroaren 10ean, Soraluzen ospatuko den azokan, barazki, animaliak eta artisauen artean banatuta. Baserritarrek antolatuko duten jan-gunea izango da berritasuna, herriko sagardoen lehiaketa eta guzti. Txerrikumeak erreko dituzte pintxotan banatzeko eta gaztainak ere bai. Horrekin batera, lehen aldiz, herriko sagardoen lehiaketa ere antolatuko dute. Guztira, lau edo bost sagardo lehiatuko dira eta herritarrek ere izango dute probatzeko aukera. Bestalde, azken urteotan Pil-pileanek antolatuko izan duen talo-postua Gure Esku Dago ekimenak kudeatuko du aurten.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Montserrat Etxaburu Zubizarreta. 82 urte. 2018-X-25.
- Pablo Murua Zarraga. 92 urte. 2018-X-27.
- Jose Asurmendi Esparza. 96 urte. 2018-X-29.
- Ramon Irigoien Oria. 94 urte. 2018-X-29.
- Avelina Taboada Gomez. 82 urte. 2018-X-30.
- J.L. Samuel Lafuente Lopez. 80 urte. 2018-X-30.
- Enrike Garate Altuna. 79 urte. 2018-X-30.
- Juan Bautista Calleja Saenz. 70 urte. 2018-XI-1.
- Angel Santos Gonzalez. 52 urte. 2018-XI-1.
- Sebas Larreategi Gaztelurrutia. 55 urte. 2018-XI-2.
- Jose M^a Larreategi Mandiola. 68 urte. 2018-XI-3.
- Juan Carlos Suarez Fariñas. 57 urte. 2018-XI-5.
- Reme Rubio Del Palacio. 61 urte. 2018-XI-7.

jaiotakoak

- Nora Ghaba. 2018-X-17.
- Yakob Fernandez Albizu. 2018-X-24.
- Hoda Atmani. 2018-X-29.
- Luka Alvarez Silva. 2018-X-31.
- Ekhi Larrañaga Arizaga. 2018-XI-1.
- Izaro Silva Haya. 2018-XI-2.
- Izar Iñan Garrido. 2018-XI-4.

farmaziak

- Barixakua 9
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 10
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 11
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 13
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 14
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 16
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2018AN-

Lafuente (Sostoatarren, 10)

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (jokoa)..699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

8	6	1	2	3	4	7	5	9
5	4	3	7	6	9	8	2	1
7	2	9	1	8	5	4	3	6
2	1	5	4	9	3	6	8	7
4	3	7	8	2	6	9	1	5
9	8	6	5	7	1	2	4	3
6	9	4	3	1	8	5	7	2
3	7	8	9	5	2	1	6	4
1	5	2	6	4	7	3	9	8

		5	4	1				
2				8	3	1		
1		8			7	4		
		6						5
	5						8	
4						3		
		9	7			5		6
		4	8	5				1
					3	9	8	

Barixakua 9

ZIENTZIA ASTEA

17:30. "Hondar 2050. Gure hondakina, gure arazoa" dokumentala.

19:00. "Caos en la fertilidad del siglo XXI" hitzaldia, Miren Mandiolararen eskutik. Portalean.

ANTZERKIA

20:30. "El Rey muere" (Sarabela antzerkia). 12 euro. Coliseoan.

Zapatua 10

ZIENTZIA ASTEA

10:15. "Guk hitz egiten dugu. Baina hitz egiten ote dute haiek?" hitzaldia. Portalean.

HITZALDIA

11:00/13:00 eta 17:00/19:00. "Herramientas de coaching para padres y madres", Akorde-ren eskutik. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

FESTA DO MAGOSTO

18:30/21:00. Gaztainen salmenta, txorizoa, salda, ardoa eta garagardoa. Urkizun.

ZIENTZIA ASTEA

19:00. "Cambio climático, el gran desafío de nuestro tiempo" hitzaldia, Antxon Olabereren eskutik. Portalean.

LABURMETRAIAK

19:30. 19. "Asier Errasti" film laburren jaialdiaren amaiera eta sari-banaketa. Coliseoan.

Domeka 11

FESTA DO MAGOSTO

11:30. Gaztain erreak eta Galiziako produktuak.
11:30/12:30. Umeendako gaztainak doan.
14:30. Amaiera. Urkizun.

ZIENTZIA ASTEA

12:00. Itxiera ekitaldia: Ongi etorria Alberto Albistegiren eskutik.
12:10. Asier Laspiurren Zientziarte hitzaldia.
12:50. Javier Gorosabel astrofisikariari omenaldia: Itziar Garate-Lópezen "Unibertsoetik Eibarrera, zeruko izarretatik etxekora" hitzaldia, Javier Gorosabel astrofisikako ProAm Lankidetzarako sariaren aurkezpena Santiago Pérez Hoyosen eskutik, Ricardo Hueso sarituaren hitzaldi laburra, familiari sariaren erreproduzioa entregatzea.
13:30. Elkarrizketa Patxi Alonsori, Alberto Albistegi eta Enrique Zuazuaren eskutik. Coliseoan.

BIZILAGUNAK

13:00. Ekimeneko bazkarietarako izena eman dutenak elkartu. Untzagan.

MUSIKA

19:30. Jawbone (rock-country-blues) Portalea Musika Kluba). 10 euro. Portalean.

Astelehena 12

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

GAZTAÏNERRE

18:00. Gaztaina erreak banatuko dizkiete bazkide eta lagunei. Untzagako jubilatuta etxean.
19:00. Kalejira eta ondrjana. Paloma tabernatik abiatuta. AEK-ren eskutik.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Historia: Nina Simone. Dinamizatzailea: Patricia Perex Cotos. Portalean.

Martitzena 13

IKASTEN

10:00. "Eraikin aipagarriak (I)", Josean Blancoren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

BATZARRA

18:30. Akekideen Batzarra. Portalean.

ANTZERKIA

19:30. "Erbeste edo saihets baten aldarrikapenak". Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Portalean.

Eguaztena 14

ANTZERKI TOPAKETAK

17:00. Ramon Batistaren "El trapero" (Irri-Makila) eta "La fiesta de la Madonna" (ONCE-Donostiako Oroime-nak taldea). Coliseoan.

HITZALDIA

19:00. "Eibarko Ospitalea: Desinformazioaren paradigma". Rebeka Uberarekin. Bilgunean.

Eguena 15

ANTZERKI TOPAKETAK

10:00. "Adimen patologiak", Juan S. Vallejoren eskutik. Armeria Eskolan.

HITZALDIA

18:00. "Cuadros de amor y humor al fresco" (Ikasten elkarteko La Novena taldea). Coliseoan.

ODOL-EMATEA

18:00/20:00. Odol emateentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


10ean: 17:00, 19:45, 22:30(An)

11n: 17:00, 20:00(Antzokia)

12an: 20:30(Antzokia)

"Bohemian Rhapsody"

Zuzendaria: Dexter Fletcher



(1 ARETOAN)

10ean: 22:30

11n: 20:00

12an: 20:30

"El árbol de la sangre"

Zuzendaria: Julio Medem



(2 ARETOAN)

10ean: 19:45, 22:30

11n: 17:00, 20:00

12an: 20:30

"Una receta familiar"

Zuzendaria: Eric Khoo



(ANTZOKIAN)

10ean: 17:00(2 Aretoa)

11n: 17:00

"El cascanueces..."

Zuzendaria: Lasse Hallström



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, KOLDO!, zure bederatzigarren urtebetzian. Izeba Nerea, osaba Jose, Gabriel eta Leireren partez.




Zorionak, ANE Velazquez Casado, hillairen 3an urtetxua bete zenduan-eta. Musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE!!, hillairen 14an 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.




Zorionak, GAIZKA, urriaren 29xan 13 urte bete zenduaz-eta. Musu bat etxeuon eta, batez be, Garaziren partez.



Zorionak, GARI!, martitzenian 4 urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Ekainen partez.



Zorionak, ANE, urriaren 26xan gure printzesak urtetxua egin zeban-eta. Besarkada bat Oier, osaba Aitor eta izeko Olatzen partez.



Zorionak, MARKEL! Gure txikixak 2 urte egin diitu! Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Iraia eta Martxelen partez.



Zorionak, ANDER!!!, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Juleren partez.



Zorionak, ELENE!!!, aurreko domekan 7 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, BEÑAT, hillairen 5ian 4 urte egin zenduaz-eta!! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.




Zorionak, MIKEL!!, hillairen 4an 8 urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo pilla aitaxo, amatxo eta Aneren partez.



Zorionak, MIREN, neska haundi, atzo 6 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, AIZEA Barrutia Zabala, hillairen 13an 8 urte beteko dozuz-eta. Maialen eta Aneren partez.



Zorionak, KOLDO! 9 urte egin dozuz, txapeldun! Musu haundi bat amama, aitxitxa eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ETXAHUN, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Xabaten partez.



Zorionak, IZARO, etzi 10 urte beteko dozuz-eta... Milla musu famelixaren partez.



Zorionak, ARIANE, astelehenian 9 urte egin zenduaz-eta. Patxo erraldoi bat, printzesa, famelixaren partez.




Zorionak, MAIALEN, aurreko astian 6 urte bete zenduaz-eta. Besarkada haundi bat etxekuen eta, batez be, Beñaten partez.



Zorionak, IRATI Errekalde Ares, hillairen 13an 7 urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.



Zorionak, IZAR!, bixar 14 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO!, azaruaren 2xan 3 urte bete zenduazelako. Patxo mordo bat zure famelixiaren partez.




Zorionak, BEÑAT, hillairen 5ian 6 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ANDER! 8 urte dagoeneko! Musu bat famelixa guztiaren partez. Zorionsu izan!



Zorionak, HELENA, hillairen 3an 4 urte bete zenduaz-eta. Besarkada haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, HIART, aurreko domekan 7 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, EKAIN zure anaixaren partez.



Zortzi musu eta millaka besarkada NORA Arakistain Ormaetxea, gure etxeko txindurrituari, famelixakuon eta, batez be, UXUEren partez.



Zorionak, GANIX! Gaur 12 urte kolkora! Etxekuen partetik.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai T. Etxebarrian. 3 logela, egongela, jangela, 2 komun eta 2 balkoi. 100 m². Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-258913.
- Erreforma osoa behar duen pisua erosi nuke Eibarren. Tel. 670-793312.
- Errioxako Santo Domingo erdigunean pisua salgai. Berritzeko. Prezio onean. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Ego-Gainen (udalaxe ostean). Trasteroarekin. Tel. 656-733131.
- Buhardila alokagai Ubitxan. Jantzita eta igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 460 euro hilero. Tel. 620-611718.
- Emakume batek (alabarekin) pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Gehienez, 550 euro ordaintzeko prest. Tel. 667-034344.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 1999 Volkswagen Passat V 1.9 TDi salgai, egoera onean. 1.800 euro negoziagiariak. Tel. 678-075299.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Ego-Gainen (udalaxe ostean). Trasteroarekin. Tel. 656-733131.
- Gela balioiztuna alokagai Errebalen. 33-35 m². Oso argisua. Tel. 674-277661.
- Bulegoa alokagai Biharran espazioan. 250 euro, gastuak barne. Tel. 656-440644 (Ander) eta 628-590121 (Iruñe).

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 612-273591.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Diputazioaren akreditazioarekin. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Diputazioaren akreditazioarekin. Tel. 602-805869.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-150376.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta baserrian lan egiteko. Tel. 631-680819.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia handia. Tel. 632-271530.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-793487.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-253569.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 667-971010.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-013896.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-987624.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-712075.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. T el. 605-363057.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-657380.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta dendarri jarduteko. Tel. 632-700803.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaitezko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-280206.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaitezko. Erreferentziak. Tel. 631-956574.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaitezko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 602-827284.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 612-539941.
- Emakumezkoa eskaintzen da goizez edo asteburuetan umeak edo nagusiak zaitezko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-223075.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaitezko eta igeltsero jarduteko. Tel. 642-327834.
- Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 642-328092.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaitezko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-293334.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 656-823897.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaitezko eta etxeko lanetarako. Tel. 698-505289.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua, gaua barne. Tel. 605-670094.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaitezko. Eusko Jaurilaritzako akreditazioarekin. Tel. 617-844142.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaitezko. Tel. 616-809926.
- Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaitezko, obretan lan egiteko etabar. Tel. 631-402535.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaitezko. Tel. 656-823897.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaitezko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-155913.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-747635.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua. Tel. 682-764372.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaitezko. Tel. 697-292668.
- Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak zaitezko. Tel. 602-613356.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaitezko eta garbiketarako egiteko. Nagusiak zaitezko ikastaroa eginda. Tel. 602-047812.

- Emakumea eskaintzen da arratsalde edo gauaz nagusiak zaitezko. Esperientzia. Tel. 616-554004.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko: igeltsero jardun, nagusiak zaindu... Tel. 699-535728.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaitezko. Tel. 612-222362.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaitezko. Interna. Tel. 631-200936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaitezko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaitezko. Ordu-tegi malgua. Tel. 698-696194.

4.2. Langile bila

- Esperientziadun zerbitzaria behar da jate-bateko, autoarekin. Tel. 943-121262.
- Txakur-hezitzailea behar da urtebeteko txakurarentzako. Tel. 640-216922.
- Mekanika/elektromekanikarako langilea behar da. 5 urteik gorako esperientzia profesionalarekin. Berehala hasteko. Tel. 943-741480. esarriauto@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarren barixaku eta zapatu gaeetan lan egiteko. Laga curriculum Anardi tabernan.
- Ileapaintzailea behar da lanaldi erdirako. Tel. 619-928881.
- Neska euskalduna behar da umeak zaitezko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
- Hortz-higienista behar da Ermuko hortz-klinika batean. Bidalit curriculum: clinica-dentalbajodeba@hotmail.com
- Banatzailea behar da Eibarko taberna batean asteburuetarako. Motorrekin. Tel. 686-360604. Idatzi: mariasuncc@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko C2 maila duen gazteak klase partikularrak ematen ditu. Esperientzia. Merke. Tel. 690-025579.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Arineketan jarduteko zinta salgai. Berria, erabili gabe. Tel. 656-733131.
- Eharzako bi eskopeta (ja berriak) eta txakurrendako bi kaxa salgai. Tel. 649-258913.
- "Ecotermi" berogailua salgai (13 elementuak). Programagarria da. Egoera onean. 150 euro. Tel. 626-144098.

6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 722-222338.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Zilarrezko belarritakoa galduta nuen Eibar erdialdean. Swarovski kristal urdinarekin. Tel. 677-094907.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai KONA Gama Berria.

13.900€-tik aurrera



Hyundai KONA elektrikoa iritsi da. Lehenengo SUV konpaktu elektrikoa, 482 km-ra arteko autonomiarekin.

Zugan inspiratu gara berriro. Bizitza ikusteko duzun moduan. Oraina mugarik gabe bizi duzu, eta etorkizunarekin ardurutzen zara. Horregatik sortu dugu Hyundai KONA elektriko Berria. SUV konpaktu elektriko paregabea, ezaugarri sineztezinekin:

- Bi bateria-aukera:
 - 39,2 kWh-ko bateria, 136 cv (100kW) eta 312 km-ra arteko autonomia*
 - 64 kWh-ko bateria, 204 cv (150 kW) eta 482 km-ra arteko autonomia*
- Karga azkarreko aukera: bateriaren %80-ra arteko birkarga ordubeteetan.
- 0 km/h-tik 100 km/h-rako azelerazioa 7,6 segundotan.

Hyundai KONA elektriko Berria hain kotxe paregabea da beste KONA baten antza bakarrik izan dezakeela. Hyundai-rekin gama erabat desberdinaz gozatu duzu.

Hyundai KONA Gama Berria. Zuk inspiratzen duzu. Zuk gidatzen duzu.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL. BERRIA GIPUZKOARRAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30



5 ANOS DE GARANTÍA SIN LÍMITE DE KILÓMETROS
8 ANOS DE GARANTÍA DE BATERÍA

Hyundai KONA EV Gama: CO₂ emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 139 (39,2 kWh bateria) – 143 (64 kWh bateria). Autonomia (km)*: 312 (39,2 kWh bateria) – 482 (64 kWh bateria). Hyundai KONA Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-158 Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2-7. PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan KONA 1.0 TGD 88,3Kw (120 CV) 4x2 ESSENCE M Y19 (14.610€), BEZ, gaitasua, matxulazio-zerba, sustapen-deskorta, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daiteke erabiliko auto baten truke, 6 hilabetez, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulaturarekin. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 12.000€ gutxienaz, 36 hilabetezko gutxieneko epean eta 36 hilabetezko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/11/30ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: KONA EV Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. Tentsio altuko bateriarekin Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala eta 200.000 km-ko 8 urteko (behindabizi gertatzen dena) Hyundai-ren sare ofizialak salduzako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaien zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsulta ezaazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es orrian. *Autonomia ofiziala WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Autonomia erreala gidatze moduak, egoera klimatikoak, errepidearen egoera eta aire grotuaren ekoizpena erabilerak baldintzatuko dute.

DENTISTAK

EIBAR ETA EIBARTARREN ALDE

urriaren 26tik aurrera hemen egongo gara

#OrgulloEibarrés

SONRISALUD

INSTITUTO DENTAL AVANZADO

KAIKO, DEBABARRENA

Osasun arreta
hobea Deba-
barrenerako.

EIBAR OSPITALE BERRIA

Ongi etorri osasun azpiegitura berri honetara: gertuago izango gaituzu, osasun-zerbitzu berriekin. Debabarreneko biztanle guztiak arreta hobea eta hurbilagoa izango duzue.

Zure zerbitzura urriaren 29tik aurrera. Eibar Ospitale berriaren irekiera eta zerbitzuei buruzko informazioa:

943 03 29 00

eibarospitalea@osakidetza.eus

